

PEDAGOGIA

Izaskun ANDUEZA MEZQUIRIZ

JORGE OTEIZAREN
ESPERIENTZIA ESTETIKOA HAUR
HEZKUNTZAN

GBL 2020

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Gradu Bukaerako Lana

**JORGE OTEIZAREN ESPERIENTZIA ESTETIKOA
HAUR HEZKUNTZAN**

Izaskun ANDUEZA MEZQUIRIZ

GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

Ikaslea / Estudiante

Izaskun ANDUEZA MEZQUIRIZ

Izenburua / Título

JORGE OTEIZAREN ESPERIENTZIA ESTETIKOA HAUR HEZKUNTZAN

Gradua / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas,
Sociales y de la Educación

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Jaione APALATEGI BEGIRISTAIN

Saila / Departamento

Giza eta Hezkuntza Zientziak / Ciencias Humanas y de la Educación

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2019/2020

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikokoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduako ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduletan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman digu lan hau garatzeko ezinbestekoa izan den pedagogiaren eta hezkuntza zientzien inguruko ezagutzak

garatzeko, bai eta giza garapen integralaren nondik norakoak ezagutzeko ere. Hau gure ikerketaren zutabeak eta mugarriak eta proposamenaren diseinuaren ataletan presente egongo da.

Didaktika eta diziplinako moduluak bidea eman digute Haur Hezkuntza bigarren zikloan haurrek eskuratuko dituzten ikasketak zehazteko eta hauek kontuan hartuz gure proposamenaren diseinua garatzeko. Ez hori bakarrik, curriculumeko helburuak lortzera bideratutako metodologia ezberdinak aurkeztu zaizkigu didaktika eta diziplinako moduluen bitartez, haien artean, giroen bidezko metodologia, gure proposamenaren ardatz. Hortaz, modulu hauen bitartez eskuratutako ezagutzak proposamenaren diseinuaren atalean garatuko dira, baita lanaren oinarritzko mugarriak atalean ere.

Halaber, Practicum moduluak bidea eman digu Unibertsitateko ikasketen bitartean emandako eduki guztiak praktikan jartzeko, modu horretan planteatu beharreko proposamenak errealitatera eta haurren garapen mailara egokitze. Diseinatutako planteamenduaren atalean garatuko da modulu hau.

Azkenik, aukerako moduluak, hots, musikako aipamenak, bidea eman digu ulertzeko hizkuntza artistikoa haurrak komunikatzeko tresna baliotsua dela. Gure proposamenaren diseinuaren atalean agertuko zaigu.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, bi eletan idatziko dira lanaren "Sarrera" eta "Ondorioak" atalak.

Laburpena

Gratu Bukaerako Lan hau Jorge Oteiza euskal artistaren ekarpen pedagogikoan oinarritzen da eta adituen lanetatik ekarpen hura ezagutzeko, Mendialdea II Eskola Publikoko 3 urteko gelentzako sortu dugun proiektuaren proposamena aurkezten dugu bertan.

Gure erronka, 3 urteko hurrekin, Jorge Oteizaren esperientzia estetikoaren ekarpena nola gauzatu daitekeen lantzea izan da, abiapuntutzat harturik, hezkuntza aldi honi ezarritako araudia, curriculum bereziki eta arte hezkuntzarekin zerikusia duena espreski. Hala beraz, eskolako hezitzaileen bi printzipio pedagogiko gureak egin genituen, lehenengoa, giroetan oinarritutako metodologia eta bigarrena, saiakuntzaren bidezko ikaskuntza esanguratsua. Guzti honen iparrorratza haurra izanik, bere jatorrizko sentimendu eta senei, gaitasun eta beharrei erantzuten laguntzeko, Oteizaren hizkuntza artistikoen baitako ekarpen zientifiko-pedagogikoa ikaragarriko aurkikuntza dela uste dugu. Oraingo eta geroko gizakia hobea egiten lagundu dezaken haurraren berezko handitasunari kateak ez jartzeko.

Bukatzeko, azken finean, gure erronkak izan dituen katebegi guztiei bateragarritasuna emateko programazio didaktiko bat diseinatu eta planifikatu dugu.

Hitz gakoak: esperientzia estetikoa; arte-hizkuntza; zentzumenean hezkuntza; ikaskuntza giroak; haurra.

Abstract

The present End of Degree Project is based on the pedagogical contribution of the Basque artist Jorge Oteiza and known for his contribution through the work of experts, we present a project-proposal for the 3-year classrooms of the Mendialdea II Public School.

Our challenge has been to give shape to Jorge Oteiza's aesthetic experience with 3-year-olds, taking as a starting point the regulations for this stage, the curriculum, specifically the part related to art education. Thus, we have appropriated two principles of the school's educators: methodology by environments and meaningful learning based on experimentation. As our axis is the child, we believe that Oteiza's scientific-pedagogical

contribution to artistic languages is an incredible discovery to help respond to the child's own feelings and instincts, capacities and needs. To avoid chaining the essential greatness that will make the human being of today and of the future someone better.

To conclude, we have designed and planned a didactic programme to unify all the links in this challenge.

Keywords: aesthetic experience; artistic language; sensory education; educational environment; child.

Resumen

El presente Trabajo de Fin de Grado se fundamenta en la aportación pedagógica del artista vasco Jorge Oteiza. Conocida la aportación mediante trabajos de expertos/as, exponemos un proyecto-propuesta para las aulas de 3 años de la Escuela Pública Mendialdea II.

Nuestro desafío ha sido plasmar la experiencia estética de Jorge Oteiza con niños/as de 3 años, teniendo como punto de partida la normativa de esta etapa, el curriculum, expresamente la parte relacionada con la educación artística. Así pues, nos hemos apropiado de dos principios de las educadoras de dicha escuela: la metodología por ambientes y el aprendizaje significativo basado en la experimentación. Siendo nuestro eje el/la niño/a, creemos que la aportación científico-pedagógica sobre lenguajes artísticos de Oteiza es un increíble descubrimiento para ayudar a responder los propios sentimientos e instintos, capacidades y necesidades de este/a. Para evitar encadenar la grandeza esencial que hará del ser humano de hoy en día y del futuro alguien mejor.

Para finalizar, hemos diseñado y planificado una programación didáctica para unificar todos los eslabones de este reto.

Palabras clave: experiencia estética; lenguaje artístico; educación sensorial; ambientes educativos; niño/a.

AURKIBIDEA

SARRERA	1
1. GRADU BUKAERAKO LANAREN JATORRIA	1
1.1. Aurrekariak	2
1.2. Helburuak	4
1.3. Gaiak	5
2. IKERKETAREN ZUTABEAK	7
2.1. Ezagutza zientifikoa	8
2.2. Teoriak	8
2.3. Paradigmak	9
2.4. Ereduak	10
2.5. Metaforak	11
3. OINARRIZKO MUGARRIAK	12
3.1. Haur Hezkuntza eta curriculum	12
3.2. Artearen Hezkuntza VS Zentzumenen Hezkuntza	13
3.3. Zer da estetika ?	15
4. OTEIZAREN EKARPEN PEDAGOGIKOAREN IZAERA ESTETIKOA	17
4.1. Jorge Oteizaren biografia laburra	17
4.2. Esperientzia estetikoaren ezaugarriak hezkuntzan	21
4.2.1. Haurra	21
4.2.2. Heziketa estetikoa	23
4.2.3. Hizkuntzak	25
4.2.4. Jolasa	27
4.2.5. Irakaslearen rola	27
4.2.6. Espazio sortzailea	29
4.3. Senitarteko esperientzia pedagogikoa	30
4.3.1. Begirunezko hazkuntza	30
4.3.2. Jose Antonio Sistiaga	35
4.3.3. Arno Stern	37
5. OTEIZAREN ESPERIENTZIA ESTETIKOA HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOAN GARATZEKO PROIEKTU PROPOSAMENA	39
5.1. Ezustekoaren eragina	39
5.2. Kasu azterketa gure ikerketa metodo bezala	40
5.2.1. Mendialdea II eskolako Haur Hezkuntzako 2. zikloko irakasleei zundaketa	43
5.3. Programazioaren proiektu metodologikoa	44
5.3.1. Programazio didaktikoaren diseinu teorikoa	48
5.3.2. Irakasleen datu bilketa AMIA diagnosi-teknika erabiliz	63
5.3.3. Lortutako informazioaren antolaketa AMIA diagnosi-teknikaren bidez	64
ONDORIOAK ETA EZTABAIDAGAI IREKIAK	67
ERREFERENTZIAK	73
ERANSKINAK	76
I. Eranskina : Giro metodologiaren inguruan HHko irakasle eta eskolako zuzendariari elkarriketa	76
II. Eranskina : Gelako azpi-giroen erregistro-orria	78
III. Eranskina : Oteiza ikaskuntza-giroaren eguneroko ebaluazio-orria	78

IV. Eranskina : AMIA diagnosi-teknikaren bitarteko analisisa	79
---	-----------

IRUDIEN AURKIBIDEA

1.Irudia : Gure ikaskuntza giroaren antolaketa	58
2.Irudia : Jorge Oteiza ikaskuntza giroaz informatzeko familientzako oharra	60
3.Irudia : Familiak girora gonbidatzeko idatzia	61

SARRERA

Gradu Bukaerako Lan hau Jorge Oteizaren esperientzia estetikoan oinarritzen da, izenburuak kontatzen duen bezala. Esperientzia estetiko hura Haur Hezkuntzarekin uztartzeko asmoz garatu da lan hau. Horretarako, lana atal ezberdinetan banatu dugu.

Lehenik eta behin lanaren jatorria azalduko dugu, aurrekariak, helburuak eta jorratuko diren gaiak aipatuz. Ondoren, gure ikerketaren zutabeei eskainitako atala datorkigu, non ezagutza zientifikoaren zenbait termino argitzen ditugun, lanaren interpretazioa errazteko asmoz. Jarraian, gure lanaren mugarriak definituko ditugu, arte hizkuntzak Haur Hezkuntzan duen lekuaz eta estetikaz mintzatuz.

Behin mugarriak definituta, Jorge Oteizaren ekarpen estetikora hurbilduko gara, eta bide batez, Oteizak zerabilen hiztegi zehatza argitu ere. Artistak hezkuntzaren, haurren, jolasaren eta hezitzailearen inguruan zuen ikuspegia ezagutu ahalko dugu atal honetan, besteak beste. Ezinbesteko atala izan da jarraian aurkeztuko dugun proposamenaren diseinua garatzeko, Oteizaren esperientzia estetikoaren ezaugarriei jarraiki diseinatu baita.

Proposamenaren diseinuari ekin baino lehen, Mendialdea II Ikastetxe Publikoko 2.zikloko Haur Hezkuntzan egindako kasu-azterketaren berri emango dugu, gure ikerketa metodoa izan delarik. Behin ikerketaren nondik norakoak zehaztuta, gure proposamenaren diseinu teorikoari helduko diogu, programazio didaktiko baten bidez aurkeztuko duguna. Proposamena aurrera eramateko aukerarik izan ez dugunez, AMIA diagnosi-teknikaren bitartez Mendialdea II-ko 3 urteko irakasleekin batera egindako balorazioa edo aurreikuspenaren inguruan mintzatuko gara eta azkenik, Gradu Bukaerako Lanaren bitartez iritsi garen ondorioekin amaituko dugu.

Bide batez, eskerrak eman nahi genkizkieke Mendialdea II eskolako Haur Hezkuntzako zuzendariari eta irakasleei, bereziki 3 urtekoei, gure lanari eskainitako denboragatik. Izan ere, lana gauzatzeko ezinbestekoak izan dira, batez ere proposamenaren alderdiari dagokionez. Haiei esker gure proiektua zentzuzkoa eta errealagoa bihurtzea lortu dugu.

1. GRADU BUKAERAKO LANAREN JATORRIA

1.1. Aurrekariak

Castellano

No ha sido tarea fácil elegir el tema a tratar en este Trabajo de Fin de Grado, ya que hemos tenido diversos temas a elegir. Para poder hacer esa elección, primero leímos con atención todos los temas que se nos proponían y después, organizamos esos temas en base a un orden de prioridad. Para esa clasificación se han tenido en cuenta dos criterios: el interés que nos producía el tema y los/as tutores/as. Este trabajo final iba a ser duro, por lo tanto, buscábamos la comodidad tanto con el tema como con el/la tutor/a. Mediante esos criterios es como hemos llegado a tratar un tema del ámbito de la Pedagogía.

Durante los estudios de Magisterio el ámbito de la Pedagogía nos ha sido de gran interés. Aun así, creemos que el tiempo que se le ha dedicado durante los cuatro años de carrera ha sido escaso, y de ahí proviene la curiosidad de querer indagar en ella. Al fin y al cabo, ya que se considera la ciencia de la educación, ha sido primordial a la hora de conocer el mundo de la enseñanza, siendo esta la base de todas las demás áreas.

Una vez elegido el tema de Pedagogía, el siguiente paso era concretar en él. Si lo del principio fue difícil, esto lo fue mucho más. El ámbito de la Pedagogía es tan amplio, que fue difícil elegir entre todas las opciones que esta ofrece. Tuvimos muchas ocurrencias para trabajar algunos de los aspectos de este campo, pero cómo encaminarlas fue nuestra mayor duda. Finalmente, decidimos indagar en la aportación estética que le hizo Jorge Oteiza a la educación.

La decisión de profundizar en este tema fue a raíz de una asignatura sobre didáctica de la plástica en el tercer año de carrera. Gracias a esa asignatura cambió totalmente nuestra perspectiva sobre el lenguaje artístico, entendiendo así que el papel que juega en la educación es muy importante. De hecho, siempre lo hemos limitado a los meros dibujos de los/as niños/as, pero la expresión artística va mucho más allá. Investigar la experiencia estética de Oteiza ha sido una oportunidad extraordinaria para ahondar en ello.

Cabe destacar que hemos querido compatibilizar lo investigado en este trabajo con la asignatura de *Prácticas Escolares 3*. El periodo de prácticas lo hemos realizado en la

Escuela Pública Mendialdea II de Berriozar, y hacer esa fusión no ha sido nada fácil, ya que en esta escuela no se ha trabajado sobre la experiencia estética de Jorge Oteiza. Pero creemos que este Trabajo de Fin de Grado les será útil para despertar esa curiosidad hacia la aportación del artista.

Euskara

Gradu Bukaerako Lanean jorratu beharreko gaia aukeratzea ez da lan erraza izan, askotariko gaiak izan ditugu aukeran. Hautaketa hori egiteko, lehenik eta behin proposatzen zitzaizkigun gai guztiak arreta handiz irakurri behar izan ditugu eta ondoren, gai horiek lehentasun-ordena baten bidez antolatu. Sailkapen horretarako bi irizpide hartu dira kontuan: gaiak sorrarazten gintuen interesa eta tutoreak. Izan ere, amaierako lan hau mardula eta gogorra izango zen, beraz, gaiarekin eta irakaslearekin eroso sentitzea bilatzen genuen. Irizpide horiek kontuan hartuta iritsi gara hona, Pedagogia lerroko gai bat jorratzera.

Magisteritzako ikasketetan Pedagogiaren esparrua interes handikoa suertatu zaigu. Hala ere, ikasketen lau urteetan zehar eskaini zaion denbora murriztegia deritzogu, eta hortik datorkigu esparru horretan sakontzeko jakin-mina. Azken finean, hezkuntzaren zientziazat jotzen denez, irakaskuntzaren mundua ezagutzeko funtsezko arloa izan da, gainontzeko arlo guztien oinarria.

Behin Pedagogia lerroko gai bat eskuartean izanda, gai horretan zehaztea zen hurrengo pausua. Aurrekoa zaila izan bazen, oraingoa are zailagoa. Pedagogia hain da zabala, eskaintzen dituen aukera guztien artean hautatzea nekez egin genuela. Esparru honen zenbait alderdi jorratzeko hamaika burutazio izan genituen, baina hauek nola bideratu izan zen zalantzarik handiena. Azkenean, Jorge Oteizak hezkuntzari egindako ekarpen estetikoan arakatzea erabaki genuen.

Gai horretan sakontzeko erabakia ikasketen hirugarren urtean plastikaren didaktikaren inguruan eduki genuen irakasgai baten eraginez hartu genuen. Irakasgai horri esker, arte hizkuntzaren inguruan genuen ikuspegia erabat aldatu zen, ulertuz hezkuntzan jokatzeko duen papera garrantzia handikoa dela. Izan ere, haurren marrazki hutsetara mugatu izan da beti, eta askoz haratago doa adierazpen plastikoa. Horretan sakontzeko aukera paregabea izan da Oteizaren esperientzia estetikoaz aztertzea.

Esan beharra dago lan honen bidez aztertutakoa *Eskola Praktiak 3* ikasgaiarekin uztartu nahi izan dugula. Praktikaldia Berriozarko Mendialdea II Ikastetxe Publikoan burutu dugu, eta bat-egite hori ez da erraza izan, bertan ez baitzuten Jorge Oteizaren esperientzia estetikoaren inguruan lan egin. Baina Gradu Bukaerako Lan hau Jorge Oteizaren ekarpenarekiko jakin-mina pizteko baliagarria izango zaielakoan gaude.

1.2. Helburuak

Castellano

Por culpa de la crisis sanitaria generada por el coronavirus Covid-19, hemos tenido que cambiar la orientación de nuestro Trabajo de Fin de Grado. En un principio teníamos pensado realizar un trabajo de intervención, pero debido al cierre de las escuelas, iba a ser imposible llevarla a cabo. Por lo tanto, tuvimos que cambiar la orientación del trabajo a uno de propuesta y fundamentación. Esto rompió con toda la planificación que teníamos al principio y nos vimos en la obligación de replantear el trabajo.

Mediante este trabajo queremos dar a conocer la aportación que hizo Jorge Oteiza a la educación. La mayoría de las veces es conocido como un famoso artista vasco, pero su faceta de pedagogo sigue siendo desconocida en algunos casos.

Del mismo modo, quisiéramos que el trabajo presentado a continuación sirva para reflexionar sobre la manifestación y función que cumple el lenguaje artístico en la escuela, ya que hemos podido ver que mayormente es la función decorativa y expresiva la que predomina en las aulas, pero el arte puede llegar a ser un excepcional juguete didáctico para el/la niño/a.

Con este trabajo nos dirigimos a los/as educadores/as; les ofrecemos el diseño de una propuesta basada en la aportación estética de Jorge Oteiza, para poder acercarlos/as a su planteamiento y puedan utilizarla como guía para introducirlo en el aula. Por supuesto, para poder profundizar en su planteamiento es conveniente dirigirse a los/as expertos/as en el tema.

Euskara

Covid-19 koronabirusak eragindako osasun-krisialdiaren erruz Gradu Bukaerako Lanaren orientazioa aldatu behar izan dugu. Hasiara batean esku-hartzeko lana genuen

pentsatua, baina eskolen itxiera dela eta ezingo zen proposamena gelan aurrera eramanez. Beraz, gure Gradu Bukaerako Lanaren orientazioa proposamen eta fundamentaziozko lan batera aldatu behar izan genuen. Horrek gure hasiera bateko plangintza hautsi zuen eta lana birplanteatzeko beharrez aurkitu ginen.

Lan honen bitartez Jorge Oteizak hezkuntzari egindako ekarpena ezagutzera eman nahi dugu. Izan ere, euskal artista ospetsu gisara ezagutzen da gehienetan, baina bere alderdi pedagogo oraindik ere ezezaguna jarraitzen du izaten kasu batzuetan.

Ildo beretik, jarraian aurkezten den lana arte-hizkuntzak eskolan duen agerpenaren eta funtzioaren inguruan hausnartzeko baliagarria izatea nahiko genuke. Izan ere, eskolan gehienbat artearen apaingarri eta adierazpen funtzioa erabiltzen dela ikusi izan dugu, baina haurrentzat jostailu didaktiko paregabea izan daiteke ere.

Bide batez, hezitzaileengana zuzentzen gara lan honekin; Jorge Oteizaren ekarpen estetikoaren inguruko proposamen baten diseinua eskaini nahi diegu, artistaren ikuspegira hurbiltzeko eta gelan txertatzeko gida moduan erabil dezaten. Jakina, Oteizaren ekarpen sakondu ahal izateko gaian adituak direnei zuzentzea komenigarria litzateke.

1.3. Gaiak

Castellano

Para conseguir el resultado final del trabajo hemos tenido que realizar una recogida de información y después, investigar y organizar esa información.

Para empezar, hemos conocido el planteamiento de Jorge Oteiza; era un tema desconocido, y antes que nada nos hemos tenido que informar sobre su carrera. Para ello, hemos recurrido a los textos de expertos/as. Empezando por la bibliografía publicada por Lujanbio en 2008, hasta los textos sobre la aportación estética del artista han sido nuestras fuentes de información. Entre estas últimas, cabe destacar el monográfico de la revista *Hik Hasi* de 2004, en el cual expertos/as como Txapartegi, Apalategi, del Valle de Lersundi o Adrada recogieron la contribución del artista a la educación en un librito. Además de eso, el prólogo escrito por el mismo Oteiza para el libro *Psicología, Física y Ecología* (1973) de Ubalde Merino también ha sido un gran referente para conocer el punto de vista del artista.

Una vez adquirido un mayor conocimiento sobre el artista, tuvimos que determinar nuestro método de trabajo. Antes de empezar con el diseño de la propuesta para la escuela, nos pareció necesario saber que conocimientos tenían sobre el planteamiento de Oteiza las tutoras de Educación Infantil del colegio. Para ello, utilizamos el método de investigación del estudio de casos. Primero realizamos un sondeo entre las tutoras de Infantil, y después, analizamos y organizamos los datos obtenidos mediante ese sondeo, ayudándonos de ese método, siguiendo el artículo de Álvarez (2012).

En un principio, para realizar el trabajo de investigación, el sondeo fue dirigido a todas las profesoras del segundo ciclo de Infantil en Mendialdea II, ya que nuestra idea era llevar a cabo la propuesta en todo el ciclo. Pero como hemos mencionado antes, la crisis sanitaria puso patas arriba nuestra planificación, y tuvimos que replantear el trabajo. Es por eso por lo que finalmente la propuesta pensada solamente se dirige a las aulas de 3 años, ya que es el entorno que más cercano nos ha sido durante las prácticas.

Teniendo en cuenta todo esto, abordamos el diseño de la propuesta. Para poder realizarlo hemos tenido que conocer la metodología que utilizan en Educación Infantil de Mendialdea II. Sabiendo que se basan en la metodología por ambientes, hemos analizado las fuentes sobre ellos. Nuestra fuente más relevante ha sido el artículo escrito por Riera, Ferrer y Ribas en 2014 para la *Revista Latinoamericana de Educación Infantil*. A continuación, conocimos el contexto de la escuela mediante una entrevista realizada a la directora del centro, en cuanto a la metodología por ambientes se refiere. Esto nos ha dado pie a diseñar un ambiente para el primer curso de Educación Infantil, teniendo en cuenta el planteamiento de Oteiza.

Euskara

Gure lanaren azken emaitza lortzeko gaiaren inguruko informazio bilketa egin behar izan dugu eta ondoren, informazio hori aztertu eta antolatu.

Hasteko Jorge Oteizaren ekarpena ezagutu behar izan dugu; gaia ezezaguna zen, eta ezer baino lehen bere ibilbideaz informatu behar izan gara. Horretarako, adituen testuetara jo dugu. Lujanbiok 2008an argitaratutako Oteizaren bibliografiatik hasita, artistak hezkuntzari egindako ekarpen estetikoaren inguruko testuak izan dira gure informazio-iturri. Azken hauen artean nabarmentzekoa da *Hik Hasi* aldizkariaren 2004ko

monografikoa, non Txapartegi, Apalategi, del Valle de Lersundi edo Adrada bezalako adituek artistak hezkuntzari egindako emaria liburuxka batean bildu zuten. Horrez gain, Oteizak Ubalde Merinoren *Psicología, Física y Ecología* libururako (1973) idatzitako aitzin-solasa ere erreferentzia handikoa izan da artista honen ikuspegia ezagutu ahal izateko.

Behin Jorge Oteizaren inguruan ezagutza zabalagoa genuela, gure lan-metodoa zehaztu behar genuen. Eskolarako proposamena diseinatzen hasi baino lehen, eskolako Haur Hezkuntzako tutoreek Oteizaren ekarpenaren inguruan zer nolako ezagutzak zituzten jakitea beharrezkoa iruditu zitzaigun. Horretarako, kasu-azterketa ikerketa metodoa erabili genuen. Lehenik eta behin, irakasleen artean zundaketa bat egin genuen, eta ondoren, zundaketa horretatik eskuratutako datuak ikerketa metodo horren arabera aztertu eta antolatu genituen, Álvarez-ek 2012an kasu-azterketen inguruan argitaratutako artikuluari jarraiki.

Hasiera batean, ikerketa lana egiteko, Haur Hezkuntzako 2.zikloko irakasle guztiei bideratu genien zundaketa, hasierako ideia proposamena Mendialdea II-ko Haur Hezkuntza osoan aurrera eramatea zelako. Baina aurretik aipatu dugunez, osasun-krisialdiak gure plangintza hankaz gora jarri zuen, eta lana birplanteatu behar izan dugu. Hortaz, azkenean 3 urteko geletarako pentsatu den proposamena da, praktikak iraun bitartean gertuen ezagutu dugun ingurua baita.

Hau guztia kontuan izanik proposamenaren diseinuari ekin genion. Hau burutzeko Mendialdea II-n Haur Hezkuntzan darabilten metodologia ezagutu behar izan dugu. Giroetan oinarritutako metodologia darabiltela jakinda, giroen inguruko iturriak miatu ditugu. Iturririk aipagarriena *Revista Latinoamericana de Educación Infantil* aldizkarirako Riera, Ferrer eta Ribas (2014) adituek idatzitako artikulua izan dugu. Ondoren, eskolako zuzendariari egindako elkarrizketa baten bidez Mendialdea II-ko testuingurua ezagutu dugu, giroen metodologiari dagokionez. Honek bidea eman digu Oteizaren ikuspegia kontuan hartuta, Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako ikaskuntza-giro bat diseinatzeko.

2. IKERKETAREN ZUTABEAK

2.1. Ezagutza zientifikoa

Ez dago *zientzia* eta ezagutza-zientifikoa hitzaren gaineko definizio unibertsalik. Alabaina, kontzeptu hauen definizioak lortzeko saiakerak egin dituzte aditu ezberdinek. Hainbat definizio saiakera aztertu ondoren, Apalategi-k bere *Hezkuntza-Erakuntza I: Oinarri teorikoak* liburuan jasotako bi aipatuko ditugu, gure ikerketa lan honetarako lagungarriak suertatu zaizkigulako:

...Bunge-k (1985: 39) esaterako, trinkoa, koherentea eta zehatza izatea eskatzen dio zientziari. Ezagutza-eremu baten zientifikotasuna, berriz, ezaugarri-multzoz zehatza batek definitzen du: garaleku izango duen elkarte zientifikoa batek; zientzialariek bizilekutzat eta jardunlekutzat duten gizek; ikergai berezkoek eta diskurtso-esparru definitu batek; filosofia-ikuskerak orokor batek; oinarri espezifiko batek, teoria, hipotesi, eta bestelako ikerketa-eremuetatik hartutako datuez osaturikoek; oinarri formal batek, edo aplikagarri diren teoria logiko eta matematikoez osaturiko multzoak; azterkizun, xede edo diskurtsogai diren arazo espezifikoek; metaturiko ezagutza zehatzen oinarri batek; ezarritako xede eta helburuek; eta horretarako darabiltzan metodoek. (Apalategi, 2000, 22.or.)

Bestetik, Ursuak proposatzen duen definizioa dugu: “giza adimenaren prozesu sistematikoa, ordenatu eta metodikotzat jo daiteke zientzia, «jakintza» – «ezagutza» – fidagarri bat lortzera bideraturikoa. Ezagutza zientifikoa, berriz, jakintza – «ezagutza»-publikoa da. Talde zientifikoa bateko kide jantzi eta adituei dagokien jakintza da, alegia”. (Apalategi, 2000, 22.or.).

2.2. Teoriak

Aurretik aipatutako Apalategi-ren lanean irakur dezakegu (2000, 26. or.), gaur egun oso zaila suertatzen dela teoria zientifikoen ezaugarriak antzematea, eta arazo ugari dakartzala zientifikoa denaren eta zientifikoa ez denaren artean bereiztea. Eta hori arrazoi argi batengatik gertatu dela dio: teoriak jada ez dutelako iraganean zeukaten frogagarritasunik.

Aipatutako lan horretan, teoria zientifikoa onak bi ezaugarri-multzotan taldekatzen dira. Alde batetik premiazko ezaugarrien baitan daudenak:

- Ez-zirkularitatea edo definizioak ematea saihestea
- Barneko edo logikako kontraesanik ez izatea
- Lehendik onartutako ezagutzekiko egokitzapena

- Balio argigarria
- Esperimentu bidezko egiaztapena

Eta beste alde batetik, ezaugarri desiragarrien baitan daudenak, besteak beste: orokortasuna, sakontasuna, zehaztasuna, soiltasuna, intuizio-gaitasuna, iragartzeko gaitasuna, deskribatu eta azaldutako fenomenoaren erreproduktzioa eta produktibitatea.

Bunge-ren arabera (1985: 60) hiru kontzeptu ditu lagungarri zientzia baten garapenak:

1. Zientzien eta teknologien zientzia. Testuinguru jakin batean oinarritu nahi dituzte zientziak eta haien zentzua.
2. Ezagutza-arloak, sinesmenei eta ikerketei dagozkienak, edonolako ezagutzak erdietsi, hedatu eta erabiltzera bideraturikoak. Arlo horien garapenak beste hiru osagai sortzen ditu: zientzia partikularra, teknologiak eta *paradigmak*.
3. Iraultza zientifiko eta teknologikoak. Hauek paradigma edo eredu kontzeptuala aldatzearen ondorio dira.

Behin zientziaren inguruko zertzelada orokor batzuk eman ditugula, ezagutza teorikoaren oinarrizko mugarrak zehaztuko ditugu hurrengo puntuetan. Izan ere, hiztegi zientifikoak darabilen zenbait termino modu okerrean ulertzen eta erabiltzen dira, haien artean baliokidetzat hartuz, eta hauen ezaugarriak eta desberdintasunak argitzeko asmoa izango dugu hurrengo puntuetan, zientziaz hitz egiten badugu ezinbestekoa baita hiztegi zehatz eta argia erabiltzea.

2.3. Paradigmak

Ezagutza zientifikoaren mugarrekin jarraitzeko, paradigmaren nondik norakoak definituko ditugu. Hitz hau ereduaren baliokidetzat erabili izan da askotan, baina gaur egun, ez dira horrela ulertzen:

... Elkarte zientifiko batek bere gain hartzen dituen, ustezko teoria orokorrak, legeak eta teknikak osatzen duen oinarrizko interpretazio eskema bat da. Eremu zientifiko batetan, paradigma berri bat sortzen denean, taldearen egituraren eragiten du. Khunen ustetan, paradigmak, ereduak hornitzen dituzte, eta hauetatik berriz, ikerketa zientifikorako ohitura koherente bereziak sortzen dira. (Apalategi, 2000, 27. or.).

Khun-ek emandako paradigmaren definizio hori oso kritikatu izan zen, termino hori zehaztugabetzat jo baitzen. Hortaz, bere bigarren lan ospetsuan paradigma kontzeptuan

bi bereizketa egin behar izan zituen, kontzeptua mugatu eta zehazteko asmoz: *paradigma zentzu zorrotzean* ikerkuntza eta zientziaren eraikuntzaren eremua eta jokabidea adierazteko elkar onartzen diren arauak batetik, eta *paradigma zentzu zabalean*, elkarte zientifiko baten amankomuneko lana burutzeko ezinbestekoak diren jatorrizko elementuen multzoa, bestetik. (Apalategi, 2000, 27. or.)

2.4. Ereduak

Aurreko puntuan esan bezala, paradigma eta eredu baliokidetzat erabili izan dira, baina jada ezin dira elkar-trukatu. Apalategik dioen bezala (2000, 28.or.) “edozein teoria zientifiko eraikitzerakoan, eredu eta paradigmek berebiziko garrantzia dute”. Izan ere, ereduen manipulazioa funtsezkoa da ikerketa zientifikoan, teoria zientifikoaren eta munduaren inguruan ikasteko balio dutelako.

Hurrengo lerroetan, eredu zientifikoaren definizioa eta zehaztasunak aipatuko ditugu, eredu zer den sakonago ulertzeko:

...Un modelo puede definirse como una representación de un objetivo (el referente). Los referentes representados por los modelos pueden ser diversas entidades tales como objetos, fenómenos, procesos, ideas o sistemas. Un modelo científico también es un puente para conectar una teoría científica con un fenómeno, porque ayuda al desarrollo de la teoría desde los datos y la pone en relación con el mundo natural. El papel de un modelo es describir, explicar y predecir fenómenos naturales, así como la comunicación de ideas científicas”. (Acevedo et al., 2017, 157. or.)¹

Eredu kontzeptuaren esanahia askotan eztabaidatu izan eta izaten ari da, oraindik ere. Batez ere, filosofo, psikologo, zientzialari eta hezitzaileek jartzen dute zalantzan, besteak beste. Adibidez, filosofoek geroz eta garrantzia gehiago aitortzen diete eredu zientifikoei, eta praktika zientifikoan hauen funtzio ezberdinak ikertzen dituzte. (Acevedo et al., 2017, 156. or.)

¹ Eredu bat helburu baten errepresentaziotzat definitu daiteke (erreferentea). Ereduengatik errepresentatutako erreferenteak objektuak, fenomenoak, prozesuak, ideiak edo sistemen gisako entitateak izan daitezke. Eredu zientifikoa, teoria zientifikoa fenomeno batekin konektatzeko zubia ere izan daiteke, datuetatik hasita teoriaren garapenean laguntzen duelako, eta mundu naturalarekin harremanetan jartzen duelako. Eredu batek betetzen duen papera zera da: fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta aurreikusi, baita ideia zientifikoaren komunikazioa ere.

2.5. Metaforak

Eredua zer den argitzen saiatu ondoren metafora hitzaren txanda dator: “Oinarrizko metaforak [...] bilakatzeko gaitasuna dute ereduak, eta zientzia baten muga fisikoak zedarrizteko balio dute; horrela, zientziaren garapena eta diskurtsoa errazten dute, bai maila teoriko edo oinarrizkoetan, bai bere aplikazioetan edo karakterizazio teknologikoetan”. (Apalategi, 2000, 28. or.).

Metafora beste definizio honetan bezala aurki dezakegu: “Bi osagaien artean dagoen antzekotasunean oinarriturik, errealitate bat beste baten izenarekin ordezkatzeko duen prozedura literarioa da metafora” (Euskaltzaindia, 2020).

Termino literarioa den heinean, pentsaezina litzateke zientzia bezalako arlo zehatz eta objektibo batean metaforak erabiltzea, zientziak darabilen hiztegia ezin zehatzago, objektiboago eta zorrotzagoa baita.

Habitualmente se sostiene que las metáforas son expresiones en las cuales se dice algo, pero se evoca o sugiere otra cosa, que son -o deberían ser- patrimonio casi exclusivo del lenguaje literario o del lenguaje vulgar, y que no son relevantes en el discurso científico. (Palma, 2005, 47.or.).²

Esanak esan, gaur egun zientzian metaforak erabiltzen dira. Baieztapen hau berresteko, Palma-ren hitzak ekarriko ditugu gogora (2005, 47. or.): “...aunque hay excelentes ejemplos en la literatura, también hay metáforas brillantes y fecundas en la ciencia, y la tesis más fuerte, que las metáforas cumplen en la ciencia un papel constitutivo fundamental”.³

Ikus dezakegun moduan, metaforak rol edota funtzio garrantzitsua jokatzen du gaur egungo zientzian. Morales Hernandez-ek honela deskribatzen du metaforaren funtzioa zientzian:

El uso de la metáfora por parte de científicos tiene la mayoría de las veces un carácter didáctico [...], se emplea con el objetivo de comunicar ideas abstractas en un lenguaje simple. [...] Muchas veces se emplea para acercar y facilitar la comprensión pública de determinados conceptos o

² Normalean esaten da metaforak zerbait esaten duten espresioak direla, baina bestelako zerbait iradokitzen dutela, hizkuntza literarioaren edo arruntaren ondare eskusiboa direla (edo beharko luketela izan), eta arrazoibide zientifikoan ez direla esanguratsu.

³ “...literaturan adibide bikainak dauden arren, zientzian ere berebiziko metaforak daude, eta ideiarik indartsuena, metaforek funtsezko zeregin osagarria jokatzen dutela zientzian”.

construcciones, sobre todo a los no instruidos en ciencia, y en este sentido tiene una función pedagógica. (Morales-Hernandez, 2017).⁴

Beste era batera esanda, metaforak zientzia kontzeptuak modu simple eta erraz batean azaltzeko erabiltzen dira, ahalik eta publiko gehien uler dezan. Horrenbestez, esan daiteke metafora baliabide literarioa izatetik pentsaezina zen baliabide zientifikoa izatera iritsi dela.

3. OINARRIZKO MUGARRIAK

3.1. Haur Hezkuntza eta curriculum

Gaur egungo hezkuntzan heziketa estetikoak jokatzen duen papera eta ematen zaion trataera ezagutzeko, Nafarroan Haur Hezkuntzako curriculumean heziketa estetikoaren inguruan aipatzen dena aztertuko dugu hurrengo lerroetan.

Martxoaren 19ko 23/2007 Foru Dekretuan aipatzen den bezala, ahozko hizkuntza ez ezik, autonomia garatzeko ezinbestekoak ditugu beste hizkuntza batzuk, horien artean, hizkuntza artistikoa. Curriculumean ezarrita dagoena hitzez hitz aipatuko dugu: “ez dugu ahaztu behar beste hizkuntza batzuk ere badirela, [...] adierazpen ahalbideak aberasteko oinarrikoak direnak eta komunikatzeko gaitasuna garatzeko laguntza ematen dutenak”.

Dakigun bezala, Haur Hezkuntzako edukiak arloetan banatzen dira. 3 dira arlo horiek: *Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala, Ingurumenaren ezagutza eta Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena*.

Azken arlo horretan, *Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena arloan* adierazita dagoenez, arte-hizkuntza komunikatu eta irudikatze moduen artean dago. Honela adierazita dago bertan: “Arte hizkuntzan hizkuntza plastikoa eta musikala sartzen dira. Hizkuntza plastikoaren hezkuntza-ikuspuntuak barne hartzen ditu materialak, testurak, objektuak eta tresnak manipulatu eta plastika-produkzioetara hurbiltzea, abilezia eta

⁴ Zientifikoengan, gehienetan, metaforaren erabilerak izaera didaktikoa du [...], ideia abstraktuak hizkuntza simple batean komunikatzeko helburuarekin erabiltzen da. [...] Askotan kontzeptu edo erakuntza jakin batzuen ulermen publikoa hurbiltzeko eta errazteko erabiltzen da, batez ere zientzia ikasi ez dutenentzat, eta zentzu honetan funtzio pedagogikoa du.

trebetasun berriak hartu eta sentsibilitate estetiko eta sormena bultzatzeko". (Foru Dekretua, 23/2007).

Hizkuntza modalitate guztien bitartez, ikaslearen garapen integratua sustatzen da. Haurrek irudimena eta sormena lantzen dute hizkuntzen bitartez, bere identitatea garatzeko lagungarriak dira, harremanen eta emozioen kudeaketarako baliagarriak dira eta errealitatea irudikatzeko tresna dira.

Jarraian, *Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena* arloko arte-hezkuntzarako zehazten diren helburuak aipatuko ditugu. Bi baino ez dira artearen heziketari erreferentzia egiten diotenak:

- Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea, bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta bere asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea.
- Hizkuntza desberdinetan azaldutako arte lanak ezagutzen hasi eta teknika batzuk erabiliz irudikapen eta adierazpen artistikoko jarduerak egitea.

Hizkuntzaren arlo honetan arte-hizkuntzari dagozkion helburuen berri izan ondoren, arloaren edukiak jorratuko ditugu jarraian. Izan ere, edukien-multzoen artean arte hizkuntzari multzo bat dagokio. Eduki horien artean daude: testura, forma eta kolorea bezalako plastika osagaiak esperimentatu eta aztertzea; gertaerak, emozioak edota bizipenak adieraztea marrazkien edo teknika ezberdinen bitartez; eta azkenik, inguruko obra plastikoak interpretatu eta egokiago baloratzen ikastea. (Foru Dekretua, 23/2007)

Atal hau arte-hizkuntzaren inguruan Nafarroako Haur Hezkuntzako curriculumak zehazten duena aztertzeke planteatu da. Ikus daitekeen moduan, arteak badu bere garrantzia eta bere lekua gaur egungo hezkuntzan, baina hala ere, beste edukiekin alderatuta, nahiko txiroa jarraitzen du izaten, gehienbat plastikara mugatuta.

3.2. Artearen hezkuntza VS Zentzumeneren hezkuntza

Hurrengo lerroetan aurreko atalarekin zerikusia handia duen gaia jorratuko dugu. Izan ere, curriculumean hizkuntza arloaren baitan aldaketak eman dira eta horrek hizkuntza artistikoan eragina izan du, zuzen-zuzenean; komunikazioaren erabilera esparruak zabaldu dira eta komunikatzeko bide anitzak aitortu dira. Gauzak horrela, Artearen Hezkuntzaren inguruan mintzatuko gara atal honetan, ondoren Zentzumeneren

Hezkuntzaren inguruan zertzelada batzuk emateko eta Arte Hezkuntzarekin kontrastatzeko.

Ez da kontu berria hezkuntzan plastika, musika edo dramatizazio gisako ikasgaiei axolarik ez egitea. Planifikazio zehatzik gabeko ikasgaitzat hartu izan dira, eta behin haurrek eskola utzita, ez zuten gisako klase gehiagorik. Orokorrean, Genua-k *Jakingarriak* aldizkarian aitortzen duen bezala (1993), ikasgai “apaingarriak” bezala hartuak izan dira. Gainera, ikasgai horiek gauza *politak* edo *ikusgarriak* egitera bideratu izan dira.

Baina denborarekin, zenbait profesional horrekin apurtzeko asmoarekin agertu izan dira, eta ziurtasunez defendatu dute garrantzitsuena ez dela emaitza, ezta gauza *politak* egitea ere. Kostata baina, azkenean, Oinarrizko Diseinu Kurrikularrak eta Erreformatik arlo kurrikularretan norabide aldaketak eragin zituzten, haurrek bereganatzen zituzten kontzeptu kopurua edo eskuratzen zuten emaitza baino, haurren gaitasunak erdian jartzeko.

Genua-k (1993, 23.or.) dioen moduan, honako hau da defendatzen zutena “gauzak behatzeko, somatzeko, adierazteko eta komunikatzeko gaitasunak garatzeko asmoarekin dihardugu. Umeak bere zentzumenak hezi ditzan, bere irudimena eta sormena landu ditzan ahalegintzen gara”. Ez hori bakarrik, kritikotasunean eta pentsamendu dibergenteko haurrak bilatzen ziren, arazo ezberdinen aurrean irtenbideak aurkitzeko gai direnak. “Umea haztea, jakinahia izan dezala, gauzak adieraz ditzala, zentzumenak jorra ditzala, inizatibaduna izan dadila, bere nortasuna sendo dezala da ardura diguna”.

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, arte hizkuntzari dagozkion edukiak, hau da, plastika, dramatizazioa eta musika, jada Komunikazio eta Errepresentazioaren Arloaren baitan kokatzen dira, bestelako hizkuntza adierazpenekin batera. Horrek esan nahi du musikari, plastikari eta dramatizazioari komunikabide ahalmena aitortu zaiela. Hala ere, profesionalen prestakuntza eta denborarik eza ikasgai horiek kaltetzen ditu. Baina, “...benetan sinesten badugu komunikazio eta errepresentazio era horiek [...] umeen hezkuntza integrala aberasteko modu on bat direla, orduan, horren alde egin behar dugu, tinko-tinko”. (Genua, 1993, 25. or.)

Behin arte hezkuntzaren inguruan hitz egin dugula, zentzumenen hezkuntzaren inguruan mintzatuko gara. *Jakingarriak* aldizkariko Adrada-ren artikulua (1993), arte hezkuntza zentzumenen hezkuntza dela aipatzen da. Rousseau-k defendatu zuen moduan, haurarentzat zaila da ideiak bereganatzea; ideiak baino, hotsak, irudiak edota sentipenak bereganatzen ditu. Izan ere, bertan dauka haurrak bere jakinduria guztia, sentipenetan. Horrek esan nahi du zentzumenak direla informazioz hornitzen gaituzten lehenak. (Adrada, 1993).

Hizkuntza bakoitzak bere kode propioa duela aipatu zuen Adrada-k (1993, 27. or.). Gauzak horrela, profesionalen zeregina haurrei kode horiek ezagutaraztea izan beharko luke, ikusten ikas dezaten. Izan ere, edozer gauzak badu komunikatzeko ahalmena, baina gauza guztiek ez dute berdin komunikatzen.

Behin bi hezkuntza estilo hauek aztertuta zera da gure ondorioa: artearen hezkuntza eta zentzumenen hezkuntza eskutik oratuta daudela. Ezin genezake ulertu arte hezkuntza zentzumenen hezkuntzarik gabe.

Eta nola hezi haurrak arte eta zentzumenen hezkuntza estilo konbinatu horretan? inprobisazioaren bidez sortzera animatuz. Jakin badakigu haurrak primerako ikerlariak direla; mundua arakatzen eta miatzen dute etengabe, mundu hori ezagutu ahal izateko. Piageten esanetan, ezagutza hori eman dadin haurrek ereduak sortzeko beharra dute. Eredu horiekin etengabeko esperimentazioan aritzen dira, nahieran aldatu edo apurtzen baitituzte eredu horiek. Hori jakinda, profesionalon zeregina ereduak sortzen irakastea beharko luke izan, haurra ahalik eta estimulu gehienez hornituz, jolasaren bitartez. Prozesu horretan zera da garrantzitsuena: emaitzak baino, ikasketa prozesua da benetan jolas edo esperimentazio hori baliagarri bihurtuko duena.

3.3. Zer da estetika?

Lan honen irakurketa eta interpretazioa errazteko asmoz, behin ezagutza zientifikoaren alderdiak argituta, estetikaren alorrera egingo dugu salto. Geroago artista batek, hots, Oteizak hezkuntzari egindako ekarpen estetikoaz arituko garenez, ezinbestekotzat jotzen dugu *estetika* terminoa definitzen hastea.

Euskaltzaindiaren Hiztegiak estetikaz ematen duen definizioarekin hasiko gara (2020): “edertasuna eta artea aztertzen dituen jakintza; edertasunari buruzko ikuspegi jakin

bakoitza". Esan dezakegu definizio honek artearen alorrera mugatzen duela estetika, fenomeno estetikoak soilik artean gertatuko balira bezala.

"La estética no está separada del mundo" adierazi zuen Yves Eyot-ek *Génesis de los fenómenos estéticos* liburuan (1980)⁵. Lan honen bitartez fenomeno estetikoaren jatorria azaltzen ahalegindu zen, eta bide batez *estetika* definitu ere, estetikaren kontzeptio zientifikora iristeko asmoz. Zenbait adituen definizioak bildu zituen eta alor ezberdinek estetikaren inguruan egindako ekarpenaz aritu zen.

Hurrengo lerroetan Eyot-en liburuan interesgarriak suertatu zaizkigun definizio batzuk emango ditugu, Euskaltzaindiak emandako definizioarekin kontrastatzeko. Mikel Dufrenne da Eyot-en liburuan aipatzen den esteta bat, beste askoren artean, eta zion: "Es estético todo objeto estetizado por una experiencia estética cualquiera" (Eyot, 1980, 19. or.)⁶. Bere ustez naturak edertasuna ekoizten du, baina natura ez ezik giza pertzepzioa behar da zerbait estetiko dela adierazteko.

Etienne Souriau dugu lan horretan askotan aipatzen den beste esteta bat. Bere ikuspegia Dufrenne estetarekin alderatuta oso bestelakoa da, hots: "La estética es una reflexión sobre el arte y no sobre lo bello, y ésta es la opinión casi unánime de los estetas del siglo XX".⁷(Eyot, 1980, 10. or.).

Baina bi esteta hauen ikuspegia alde batera utzita, Eyot-ek berak fenomeno estetikoaz zuen ikuspegiarekin geratuko gara, interesgarria deritzogulako, natura eta artea alde batera utzita gizakiaren pertzepziotik eraikitzen baitu berak fenomeno estetikoaren definizioa:

... Consideraré como fenómeno estético todo fenómeno ante el cual un grupo o un individuo, formule – aunque fuere de un modo fugaz – el calificativo de estético, o el calificativo de bello, o de artístico..., o alguno de sus sinónimos o de sus antónimos. (Eyot, 1980, 11. or.)⁸

⁵ "Estetika ez dago mundutik bereizita".

⁶ "Edozein esperientzia estetiko batengatik estetizatutako objektu oro da estetiko".

⁷ "Estetika ederra denaren hausnarketa baino, artearen inguruko hausnarketa da, eta hau da XX. mendeko esteta ia guztiek agertzen duten iritzia".

⁸ ...Fenomeno estetikit hartuko dut, talde edo gizabanako batek estetiko kalifikatzailea, edo eder kalifikatzailea, edo artistiko..., edo edozein sinonimo edo antonimo adierazten badu (nahiz eta modu iragankorrean izan).

Ezin aipatu gabe utzi Eyot-en lana oso sakona dela, hainbat alor eta ikuspegietatik estetikara hurbiltzen saiatzen dena, termino zail hura ezagutzera emateko asmoz. Eta adibide gisa, hasieran eman dugun Euskaltzaindiaren definizioari kontra eginez Eyoten aitortpen hau eman nahi dugu aditzera: “Si algunos esperan esclarecer los problemas estéticos restringiendo su campo al arte, constatarán que es imposible esquivar la cuestión de fondo”.⁹(Eyot, 1980, 16.or.)

Hasieran esan dugun bezala, atal hau Oteizaren ekarpen estetikoaren ezagutu baino lehen estetikaren inguruko zertzelada batzuk emateko egin da. Behin *estetika* terminoaren zenbait definizio ikusi ditugula, funtsezkoa deritzogu geroago hitz egingo dugun artistaren, hots, Oteizaren estetikaren ikuspegia aurkeztea. Jorge Oteizarentzat estetika bakarra dago, eta *estetika* hitzaz aritzen zenean, giza jakinduriaren lekuaz ari zen, hau da, bizitzan fabrikatutako giza jakinduriaz. (Apalategi, 2003, 11.or.)

Oteizaren ikerketa guztiek estetika zuten aitzakia, inguruak gizakiari jartzen dizkion arazoen aurrean egoki erantzun ahal izateko. Izan ere, bere ustetan, arazo horiek ebazteko garatzen ditugun bideak estetikazkoak dira. (Apalategi, 2004, 8. or.)

Labur-labur, hori da geroago sakonean aurkeztuko dugun Jorge Oteizak *estetikaz* zuen ideia. Bere ekarpen estetikoaz aurrerago mintzatuko gara.

4. OTEIZAREN EKARPEN PEDAGOGIKOAREN IZAERA ESTETIKOA

4.1. Jorge Oteizaren biografia laburra

Jorge Oteiza, 1908an Orion jaioa, eskultore euskalduna izan zen. Baina eskultore ez ezik, poeta, filosofo eta hezkuntzan konprometitutako gizona izan zen. Bere bizitzaren lehenengo urteak Orio eta Donostia artean igaro zituen. Lekarotz-en batxilergoko ikasketak burutu zituen eta unibertsitateko ikasketak erabakitzerako garaian, zalantza ugari izan zituen. Ez zuen argi zein izango zen bere etorkizuna arlo akademikoan, arkitektura ikastea erabaki zuen arte. Baina, Primo de Riveraren dekretu bat dela medio, ezin izan zituen ikasketa horiek burutu eta medikuntza ikastea erabaki zuen.

⁹ “Batziek espero badute arazo estetikoak argitzea artearen eremura murriztuta, egiaztatuko dute ezinezkoa dela funtsezko auzia saihestea”.

Medikuntzako ikasketak 21 urterekin amaitutzat eman zituen, eta Arte eta Ofizioen eskolan eman zuen izena. Horrela, eskulturan lehen urratsak eman zituen Jorge-k. Lehenengo urte horietan Alberto Sanchez eskultorearen eragina izan zuen, zeinetik konstruktibismo errusiarraren erreferentzia garrantzitsuak bereganatu zituen.

30.hamarkadako hasieran, Euskal Herrian, ahaztuak zeuden abangoardiekin lehenengo saiakerak egin ziren. Hura zen garaiko egoera artistikoa, eta Jorge Oteiza bera izan zen protagonista, beste batzuen artean.

1935.urtean, Narkis Balentziagarekin batera, Buenos Aires-erako bidea hartu zuen Oteizak. Garai hartan, hainbat erakusketa eta hitzaldi egiteaz gain, idazteari ekin zion, eta gerora funtsezkoak izango zituen ideia eta teoriak garatzen hasi zen.

1938an Itziar Karreñorekin ezkondu zen, eta garai berdinean, zeramikan espezializatzeari ekin zion. Horrek teknika eta material berriak ezagutzea suposatu zuen, eta hauek bere eskulturetan eragin handia izan zuten. Era berean, hasieran Oteizaren eskulturak erabat estatikoak baziren, jarrera dinamikoagoak hartu zituzten.

1948an, 40 urterekin eta Ameriketara hamabi urtez igaro ondoren, Euskal Herrirako bidea hartu zuen bikoteak. Jorge Oteizaren bizitzan aro hau funtsezkoa izan zen, bilakaera pertsonalean eta artistikoan, nahiz eta urte hauek ikertzeko zailak izan diren, berak ez baitzuen askorik kontatzen garai hartaz.

Ameriketatik itzultzean, Gerra Zibilak suntsitutako proiektuak biziberritzeko saiakerak egin ziren, eta Oteiza mugimendu horien defendatzaile bilakatu zen. Denbora labur batean, euskal kulturaren erreferente bilakatu zen, suntsituta zegoen mugimendu kulturala pizteko saiakeretan ibili baitzen.

Oteizaren eskulturak aldaketa nabarmenak pairatu zituen garai hartan: bloke itxi eta estatikoetatik forma ireki eta arinetara igaro zen. Oraingoan behatzekin egiten zuen lan, eta horrela material sakonuneak lortzen zituen. Horrek dinamismoa transmititzen zuen. Oraingo honetan abiapuntua zilindroa zen, hiperboloidea.

Orduan, Oteizak berriro sentitu zuen bere eskulturan aldaketak egiteko grina, eta oraingoan bere helburua, erabat objektiboa eta arrazionala izango zen eskultura lortzea zen. Etapa honetan hasiko da Oteizaren *espazio hutsa*, gizakiaren espirituarentzat babesgunea izango dena.

50.hamarkadan Oteizak *Asmo Esperimentala 1956-1957* liburuxka kaleratu zuen, eta liburuxka horri, Sao Pauloko bienalean Sari Nagusia eman zioten. Oso garrantzitsua izan zen Jorge Oteizarentzat sari hori, izan ere, urteetan zehar egindako esperimentazioari eta ikerketari emandako saria izan zen, eta bestetik, nazioarteko ospea ekarri zion. Baina nahiz eta ospetsu bilakatu, ospe hori errefusatu zuen eta bere lantegira itzuli zen.

Orduan gertatu zen Oteizaren eskulturaren konklusio fasea, esperimentazioaren amaiera. 1959. urtean hartu zuen erabaki hori, ustez behin betikoa, nahiz eta urte batzuk geroago iritziz aldatuko zuen.

Oteizak, artistak zeregin sozial bat zuela sinisten zuen, eta hori izango zuen ardatz aurrerantz: “Euskal Herrian artearen bidezko heziketa estetikoa bultzatzea eta bere herria artistikoki eta kulturalki suspertzeko lan egitea”. (Lujanbio, 2008).

Eskultura utzi zuenean, 1961 eta 1964 urteen artean *Aldaketen Legearen* teoria garatu zuen, eskultura utzi eta artistaren betebeharrak sozialari lehentasuna emateko erabakia azaltzen zuen teoria. Oteizaren biografia liburuan aipatzen den moduan (Lujanbio, 2008, 73-74. or.), “Aldaketen Legearen arabera, artearen bilakaera gertaera historikoekin bat joan izan da, eta eraldaketa historiko sakon guztiek beren isla izan dute artean [...] ziklo naturalaren bilakaera bera dutela baieztatzen du teoria horrek, alegia, jaiotze, hazkuntza eta dekadentzia faseetan banatzen direla”. Aldaketaren Lege horrekin amaiera eman zion esperimentazio eskultorikoaren aroari.

Bere bizitzaren hurrengo aroa hezkuntzari eskaini zion. Hezitzaileek eta haurrek jasotzen zuten heziketa eta metodologia aztertu eta kritikatu zuen. Gauzak horrela, urteetan zehar hezkuntzaren inguruko zenbait proiektu berritzaileak martxan jartzeko jardun zuen. Proiektu hauek ugariak izan ziren: 1961ean Donostiako San Telmo museorako Ikerketa Estetiko Konparatuen Institutuaren proiektua; 1963an, Ikerketa Estetikoaren Nazioarteko Institutua; 1965. urtean, Donostiako Kursaalako Herri Unibertsitate Laborategiak; euskal unibertsitate pilotuaren proposamenak, etab. luze bat. Proiektu gehienak diru eta azpiegitura faltagatik ezin izan ziren aurrera eraman. Oso proiektu gutxi lortu zuten aurrera jarraitzea.

Martxan jartzea lortu zuen proiektu horietako bat 1964 eta 1965 urteen artean Elorrioko haur hezkuntzako eskola esperimental pilotua izan zen, Jose Antonio Sistiaga eta Esther

Ferrer-ekin batera. Honako hau zen eskola horren helburua: “helburua herriko haur guztientzat doako eskola eskaintzea zen, eta hezitzaile eta artistentzat Arte Garaikideko eskola esperimental sortzea”. (Lujanbio, 2008, 79.or.). Baina azkenean ezin izan zen aurrera eraman eta 1965ean porrot egin zuen.

Deban, 1969an Arte Eskola Pilotua martxan jartzea lortu zuen. Eskola horretan diziplina ezberdinak lantzen ziren: musika, pintura, eskultura edota antzerkia; eta diziplina hauek uztartzea eta bateratzea zuen helburu. Baina eskola honek ere ez zuen asko iraun, artisten artean sortu ziren liskarren eta arazo ekonomikoen erruz.

1966an, Euskal Eskolaren proiektua jarri zuen abian, talde artistikoak sortzeko eta euskal artistak bateratzeko. Honako hau zen Euskal Eskola horren helburu nagusia: “arte eta kultura herritarren eskura jartzea, horrela, sorkuntza garaikidea zabalduz herri nortasuna indartzeko” (Lujanbio, 2008, 81.or.). Abangoardiako artista euskaldunek, bertakoa eta nazioartekoa, eta tradizioa eta modernitatea uztartzea zuten helburu eskola honekin, eta hori lortzeko, proiektua osatuko zuten taldeak sortu zituzten, hala nola, *Gaur*, *Emen*, *Orain* eta *Danok*. Baina urteak igarota, Euskal Eskolako talde hauek desegin ziren, taldean aritzeko zuten ohitura faltagatik.

Orain arteko proiektu kolektibo horiek porrota pairatu zuten arren, Oteizak ez zion etsi modu kolektiboan lan egiteari eta 70. hamarkadan hainbat saiakera egiten jarraitu zuen.

1973 eta 1974 urteen artean bere ibilbidean parentesi bat egin, eta eskulturara itzuli egin zen, berez inoiz abandonatu ez zuen jarduerara. Eskulturagintzara itzultzearen asmo nagusia laborategian bukatzeke zituen serieak amaitzea zen. Horrek zenbait erakusketatan parte hartzea suposatu zuen.

1975. urtean, Itziar Karreño-k eta Jorge Oteizak Altzua herri Nafartarrean etxe bat erosi zuten, bere lantegi eta biltegia izango zena. Erretiro moduko bat izan zen artistarentzat, munduaz isolatzeko modu bat.

90. hamarkada poesiagintzan murgilduta igaro zuen, Altzuzan. Hamarkada hori kontraesan bezala betetua izan zen Oteizarentzat. Inkongruentziarik handiena bere eskulturekin zerikusia zuen. Izan ere, eskulturek espazio publikoan presentzia handiagoa izaten hasi ziren, eta berak beti adierazi izan zuen bere eskulturak tamaina txikikoak izango zirela.

Oteiza 2003ko apirilaren 9an hil zen, 94 urterekin. Amaitzeko, utzitako zantzua laburbiltzen duen aipu bat ekarriko dugu gogora:

...60ko hamarkadan hasi eta gaurdaino, artean, antzerkian, literaturan, bertsolaritzan eta abar, nonahi aurki litezke Oteizaren erreferentzia zuzenak nahiz zeharkakoak. Bizirik zela esku artean izan zituen proiektu gehienek huts egin bazuten ere, gutxik izan duten oihartzuna izan dute epe luzera haren gogoetek. (Lujanbio, 2008, 110. or.)

Jorge Oteiza nor zen ezagutu ondoren, eta bere ibilbidea aztertu ondoren, hezkuntzari egindako ekarpena ezagutuko dugu hurrengo ataletan, ekarpen horren oinarritzko mugarrak azalduz.

4.2. Esperientzia estetikoaren ezaugarriak hezkuntzan

4.2.1. Haurra

Hurrengo lerro hauetan, Jorge Oteizak haurraren inguruan zuen ikuspuntua ezagutuko dugu. Has gaitezen Oteizak eman zuen haurraren definizioarekin: “Mekanismo biologiko miragarri eta bat-batekoa, animalia txiki laburra, bi mugen artean dagoena: lehengo herria = *heldu inkontzientea*; eta oraina hobetzeko aukera = *heldu kontzientea* = gizaki berria”. Definizio hau XX. mendean haurraren inguruan egindako ikerketa psikologiko eta pedagogikoak eta abian jarritako hainbat eskola ezagutu ondoren atera zuen ondorioa da. Aurretik aipatutako definizio hori beste modu batera esan daiteke:

...haurra biologiak eraturako bat-bateko gaitasuna duen animalia txikitzat hartu behar zela, non bere egitekoa bi mugaren artean garatzen den: alde batetik, jaiotzetik dakarren “heldu inkontzientea” edo bere jatorrizko herriak eskainiko dizkion ezagutzen multzoa; eta bestetik, “heldu kontzientearen” edo oraina hobetzeko trebatuko duten jakintzaren eta aukeren garatzea. (Apalategi, 2003, 13. or.).

Haur hori, Oteizaren ustetan, gizaki hobe bat lortzeko dugun aukera bakarra da, eta aldiz, oso kritikoa da berarekin: “Abandonatua eta apetak ematen dionari emana, osatu gabea beti edo gezurrezko babespean, behin betiko, epe laburrerako maketa bezala iruditzen zait haur hori”. (Hik Hasi, 2004)

Baina kritikoa, batez ere haurraren ingurukoekin izaten zen Oteiza:

En general, encuentra que todos exageran con el niño@ consintiéndoles y protegiéndoles inadecuadamente. La pena de todo esto para Oteiza es que se desaprovechan ciertamente en el

niñ@ los momentos acusados y tendentes al desarrollo de la personalidad humana que vive en su natural devoción. (Apalategi, 2000, 69. or.).¹⁰

Psikoterapiarekin eta gaur egungo tratamendu zientifikoekin ere oso kritikoa izan zen, haurrari ematen zioten trataerarengatik. Alde batetik, psikoterapiari dagokionez, haurra indargabetzeagatik salatu zuen, eta terapia alienagarritzat jo zuen. Haurrari kultur eta arte gertakizunen errealitate historikoa ukatzea leporatu zion ere, gizakiaren berezko izaera ukatzen zaiolako horrela.

Beste alde batetik, honako hau da Oteizak tratamendu zientifikoaren inguruan agertu zuena, Ubalde Merino-ren libururako idatzitako aitzin-solasean: “Egungo tratamendu zientifiko osagabeek prestatzen duten haurra, haur zuria da, haur zero, abstraktua, haur suitzarra, hain zuzen, haur bigun, gozo, disolbagarri, ondugabe, zerbitzari, jangarria, alegia”. Eta haur mota hori eraikitzeagatik, honelako haurrak sortzen direla adierazi zuen: haur artifizialak. Kasu horietan, “haurtzaroak gehiegi irauten du eta nerabezaro amaigabea sortzen du, gaztaroa beranduegi ernaltzen du eta heldutasuna azaltzea zailtzen du” (Hik Hasi, 2004).

Aurreko baieztapenei kontra eginez, Oteizak haurraren hazkuntzaren inguruan duen ikuskera honako hau da: haurrak hazkuntza borrokalaria behar duela, jolasean oinarritutakoa, eta lehiakorra; eta sentimenduak garatu behar dituela pentsatzen hasi baino lehen.

Bistan da, orduan, ezinbestekoa zela hezkuntza-eredu berri bat indarrean jartzea, eta Oteizarentzat, funtsezkoa zen hezkuntza-eredu berri horrek haurraren heziketa estetikoan sakontzea, bere sormen-gaitasuna sustatzeko. Baina Oteizaren ustez, eta atal hau bukatzeko, hezitzaileak ez zeuden behar bezala trebatuak, eta ez zituzten haurraren beharrak kontuan hartzen: “Haurra ezin konta ahala aukera biltzen dituen gizakia da, 6 eta 9 urte arteko haurren ehuneko hogeik jenio baten koefiziente intelektuala dute,

¹⁰ “Orokorrean, haurra modu desegokian baimentzen eta babesten dugula iruditzen zaio. Oteizarentzat tamalgarria da horren ondorioz, haurraren zaletasun naturalean bizi den giza-nortasuna garatzeko joera nabariko momentuak alferrik galtzen direla”.

baina, heziketa egoki baten faltagatik, hamabi urtetarako geu bezain normalak dira, geu bezain tontoak”. (Lujanbio, 2008).

4.2.2. Heziketa estetikoa

Oteizak eskulturaren fasea amaitutzat eman zuenean, gizartearen zerbitzura jarri zen. Gauzak horrela, hainbat proiektu pedagogiko aurrera eramaten ahalegindu zen. Bere ibilbidearen fase horren asmoa estetikaren ikuspegia haurrari eskaintzea zen.

Oteizaren ustetan, *Estetika* bakar bat dago, eta Estetikaz ari garenean, “giza jakitatearen lekuz” ari garela dio, “hots, bizitzan fabrikaturiko giza jakitateaz. [...] Eta giza jakitatearen lekua zer nolakoa den jakiteko, giza talde bakoitzak *ikerket*a *estetiko* zehatzak burutu behar dituela esaten du”. (Apalategi, 2003, 11. or.). Oteizak zerabilen Estetikaren ikuspegi hau, Jan Christian Smuts-ek erabili zuen *estetika funtzionala*-ren antzekoa da, Estetika Linguistikoaren ikuspegi holistiko bat, alegia.

Orokorrean, betidanik estetika modu espezializatuan agertu da hezkuntzan, eta Oteizak, gizakia ongi formatzeko tresna oinarrizkotzat hartu zuen (Hik Hasi, 2004). Bere ustez, estetikak gizakiaren arazoak eta jakintzak globalki hartzen ditu eta diziplina guztiak uztartzen ditu. Uztartze horretan zientziari bere eremu berezia ematen dio, baina gainontzeko diziplina osagarriak ere garrantzia berarekin aztertuz.

Oteizarentzat, Heziketa Estetikoa jasotzea funtsezko irizpidea zen irakasle onak edukitzeko. Eta Heziketa Estetiko horren lehenbiziko eginkizuna haurra nor den aurkitzea, ikertzea zela baieztatzen zuen.

Haurraren heziketarako erabiltzen ziren metodoak aztertzerakoan, honako honetaz konturatu zen: “haurraren heziketarako egokienak diren metodoak, artistak erabiltzen dituen bitartekoetatik hurbil daudela, eta, beraz, indarrean zeudenak ez zirela onak haurraren sormena eta emozioen mundua esnatzeko [...], ez baitzuten pedagogikoki sakontzen sormen jardueraren izaera eta proiektzioa”. (Apalategi, 2003, 15. or.). Hortaz, hauek aldatzeko garaia heldu zela ondorioztatu zuen Oteizak, eta konponbidea honako hau zela iruditu zitzaion: gizaki berria nola fabrikatzen den jakitea. Horretarako, Estetikan bilatu behar zela zioen. Vadillo eta Makazaga-k *Los proyectos educativos de Jorge Oteiza* liburuan aipatu zuten bezala, “El único medio de lograr un nuevo hombre

es [...] la educación estética, «ya que supone nuestra auténtica posibilidad espiritual de recuperación».¹¹ (Vadillo eta Makazaga, 2007, 21. or.).

Artistak, kasu honetan, sentikortasun estetikoa duenez gero, bere eginkizuna sentikortasun hori herriari itzultzea izango da, heziketa estetikoaren bitartez. Heziketa estetiko hori jaso duen irakaslea soilik izango da gai haurraren *gizaki berria* sortzeko, eta honako bi helburu hauek lortzeko:

1. Haurrak daraman barru-barruko nortasunaren herria irudikatzen laguntzea.
2. Haurraren “heldu kontzientea” garatuz bere nortasun helduaren helmugara iristen laguntzea.

Gauzak horrela, garai hartako hezkuntza-sistema aztertu ondoren, honako ondorio hauetara iritsi zen Jorge Oteiza:

Hezitzaileen trebakuntza eskasa zela zioen, haurraren beharrak ez zirela kontuan hartzen; hezkuntza sistemak haurraren gaitasunak gutxietsi egiten zituela eta edukiak malgutasunik gabeko «dogma» gisa irakasten zirela. [...] Ezinbesteko ikusten zuen hezkuntza-eredu berri bat ezartzea, haurraren heziketa estetikoan sakonduko zuena eta haren sormen-gaitasuna sustatuko zuena. (Lujanbio, 2008, 78.or.)

Hitz gutxitan esanda, estetikazko hezkuntzan hazi den haurra, egia, justizia eta askatasun gisako balio bereziak eta ikuspuntu sozialeko jarrerak barneratzen dituela aitortzen du artistak. Estetikak ikusmolde globala eskaintzen dio, “bizimoduan azaltzen zaizkigun oinarritzko hainbat norabide bereganatzen ditu, elkarrekin eta batera soluzionatzeko apustua eginez: interes partikularra eta orokorra, hurbil dagoena eta ezezaguna egiten zaiguna [...]”. (Hik Hasi, 2004).

Oteizak estetika gisa ulertzen duen ikusmoldeak heziketa *esnatua* eskatzen du, “haurrari etengabe eta hainbat gunetatik eragingo diona, maitekiro baina zuhur galdera askoren aurrean ipiniko duena, bere atentzio eta kontzentrazio gaitasuna haziko duena, bere sormen ahalmena piztu eta sendotuko duena [...] barrutik indartuko duen nortasun berezi bat eraikiz” (Hik Hasi, 2004).

¹¹ “gizaki berria lortzeko irtenbide bakarra [...] heziketa estetikoa da, «berreskuratzeko benetako aukera espiritualak suposatzen duelako»”.

Jorge Oteizaren heziketa estetikoaren kontzeptua argitzen amaitzeko, artista beraren hitz batzuekin amaituko dugu:

...tenemos que convenir que, sin transformar la educación, sin ampliarla estéticamente, sin inventar una rápida y efectiva educación popular, el artista seguirá condenado a adornar o a seguir tartamudeando. [...] Ahora la tarea es ordenar, planificar, la transmisión de lo que se ha logrado, transformar la educación y abrir las nuevas escuelas. (Vadillo eta Makazaga, 2007, 21. or.).¹²

Hau guztia dela eta, Jorge Oteizaren ibilbidea heziketa estetikoa sustatzeko proiektu eta asmoez josita egon zen: heziketa estetikoa sustatzeko zentroak, eskola esperimentalak eta ikerketa estetiko bateraturako zentroak ere. (Lujanbio, 2008, 78.or.).

4.2.3. *Hizkuntzak*

Jorge Oteizak bere ekarpenean hiztegi berezia zerabilen. Hiztegi horren barne atal honetan jorratuko dugun *hizkuntza* zegoen. Baina hainbat iturrietan begiratu ostean, ondorioztatu dugu Oteizaren *hizkuntza* ez dela hitzezko adierazpidearen baliokidea, hitzik erabili gabe komunikazioa ahalbidetzen duen sistema gisa ulertu behar da artistaren termino hau.

Atal honetan Oteizak hizkuntzaren inguruan zuen ikuspegia edo proposatzen zuena ulertzeko, *Aldaketen Legea* ulertu beharra dago. Artistak lege hau proposatu zuen artisten prozesu artistikoak pairatzen duen ibilbidea azaltzeko, baina konturatu zen lege hura hezkuntzaren alorrera estrapolatu zitekeela, hezitzaileen hezkuntza estetikoa garatzen laguntzeko.

Oteizaren *Aldaketen Legea* hezkuntzan erabiltzea hezitzailearentzat baliabide berria suposatu dezake, agertzen zaizkion arazoei konponbidea topatzeko prozedura sistematiko eta jarraitu bat izango baitu lege horri esker. Baina hori lortzeko, bere prestakuntza garaian hezitzaileak bi eduki jaso behar dituela dio Oteizak: hezkuntza garaikidearen berezko atal eta eginkizunen funts zientifikoa eta hizkuntza ezberdinen

¹² ...hezkuntza eraldatu gabe, estetikoki hedatu gabe, hezkuntza herrikoi azkar eta eraginkor bat asmatu gabe, artista apaintzera edo toteltzen jarraitzera kondenatua egongo dela ados egon behar dugu. [...] Oraingo egin beharra lortutakoaren transmisioa ordenatu eta planifikatzea da, hezkuntza eraldatu eta eskola berriak irekitzea.

arteko harremanak ulertu, bereizi eta trebatzea, hauekin (berezkoak/naturalak, asmatuak/artifizialak, alderagarriak/konparatuak) esperimentatuz. (Apalategi, 2003).

Aipatutako *Aldaketan Legea*, lege bifasikoa da, hau da, bi momentu bereizten dira bere barnean, irakaskuntzaren eremura eramanda: une *ahurra* eta une *ganbila*. Une ahurrean, hezitzaileak bere *obra*, hots, irakaskuntza, dituen ezagutzekin bete behar du. Une ganbilean, aldiz, irakurlearen garaia da, hots, haurrena. Momentu honetan, haurren esku-hartze zuzena beharko da, berezkoak dituen lengoaiak askatuz eta obraren (irakaskuntzaren) irakurketa posible ezberdinak eginez. Baina hau ez da gertatuko haurra hezkuntza estetikoan hezita ez badago. Eta hori estetikoki modu egokian formatua dagoen hezitzaileak emango dio.

Oteizak *benetako hezitzaile* batek irizpide batzuk bete behar zituela defendatzen zuen. Irizpide edo baldintza horien artean honako hau zegoen: benetako hezitzaileak Hezkuntzaren zientzia benetako hezkuntzaren komunikazioa gauzatzeko tresna dela sentitu behar du. *Hik Hasi*-ren monografikoan (2004) Apalategik esaten duen moduan, "...zientzia horrek, nahitaez, ikastetxe batean ezartzen den hezkuntza sistemaren araubide estetikoa hausteko behar den hizkuntza kulturala topatzen laguntzen du". Bestenaz, hori gertatu ezean, hezitzaileen eta hezkuntza komunitate osoaren alienazioa gertatu daitekeela aitortzen du Oteizak.

Hezkuntzaren alorrean, hezkuntzaren teoriak, ikastetxeek eta irakaskuntzak komunikazio eremuak sortzen dituzte. Komunikazio eremu hori arautegi estetikoaz eta sorkuntza estetikoaz osatuta dago. Hurrengo lerroetan hobe azalduko dugu honako hau.

Oteizaren ustez, benetako hezitzailea Hezkuntzaren teorien barruan biziko da, haiekin esperimentatzeko, hots, hizkuntza artifizialekin. Hori gertatzen bada, hezitzaileak bere hizkuntza indibidualki fabrikatuko du, xede sozial honekin: haurra gizakiarentzat prestatzea.

Aurrekoa gerta dadin, unibertsitateak funtsezko papera jokatzen du. Izan ere, bertan hezitzailea *arautegi estetikoan*, hau da, hizkuntza konparatuen hezkuntza estetikoan prestatu beharko da, geroago, irakaskuntzan, sorkuntza estetikoa, hau da, esperimentazioa egiteko gai izateko. Sorkuntza estetikoa esperimentatzailea da berez,

aktiboa, kutsatzeko gai dena. Gauzak horrela, aurretik aipatutako hizkuntzak garatzeko tokia Unibertsitatean zegoela defendatzen zuen Oteizak. (Apalategi, 2003, 18. or.).

Amaitzeko, egokia iruditu zaigu atal honetan Oteizaren hizkuntza artistikoen arteko alderaketa txertatzea. Ikerkuntzarako eta esperimenezko eskultura ez ezik, olerkaritza, filosofia, arkitektura, filologia, zinema, historia, etab. erabili zituen gizakiaren eta ingurunearen arteko harremana aztertzeko. Hizkuntza artistiko guzti horien alderaketaren bitartez alor horiek guztiak modu egokian garatzeko bideak proposatu zituen, eta hainbat proiektu jarri zituen martxan horretarako. (Apalategi, 2004).

4.2.4. *Jolasa*

Jorge Oteizak adierazi zuen bezala, haurarentzat jolasa esperimenezko bitartekaria da, estimulu tradizionala. Aurretik aipatu dugun haur zero eta artifizialaren aurrean, hauraren hazkuntza lehiakorra eta jolasean oinarritutakoa defendatzen du Oteizak. Haurrak hazkuntza mota hori izatekotan, bere burua sentitzen eta nabaritzen ikasiko du, eta artistak berak askotan aipatu dugun aitzin-solasean adierazi zuen bezala:

...gure kanpoaldeko errealitatearen funtsa estetikoak haurarentzat kultur jostailu gisa erabili behar dela. Hura bizitzen ikasi behar du haurrak, haren konbinazioekin jolasten, betetzen eta husten, martxan jartzen, iratzartzen, menperatzen eta isilarazten. Hor izango du jostailua betiko, [...] bere tresna sentikorra izango du betiko. (Hik Hasi, 2004).

Hezitzailea izango da haurra jostailu kultural horretaz hornitzeko arduraduna. Hezitzaileen ardurez, eginbeharrez eta bete beharreko rolez jarraian datorkigun atalean hitz egingo dugu sakonean.

4.2.5. *Irakaslearen rola*

Lerro hauetan Oteizak proposatzen duen haur hezitzailearen ideia azalduko dugu. Bere ustetan, artista eta hezitzailea ez dira hain desberdinak, eta bere funtsezko helburuetako bat artista haur hezitzaileen hezkuntza estetikoan konprometitzea zen.

Oteizaren artista-hezitzaile harreman hori hobe ulertzeko, Ubalde-Merino-ren *Psicología, Física y Ecología* libururako idatzitako aitzin-solasean agertzen diren hitz batzuk ekarriko ditugu gogora:

...artistak zer egiten du orain [...]. Puska bat hartzen du, nahikoa zaio isolatzea, finkatzea; paketea egiten du [...] eta tokiz aldatzen du; ondorioz, ohiko publizitatea lagun, [...] festibaletara joate hori dator. Hor ikusgai dira [...] espazioaren jostailu serio eta aldakor horren zatitxoak. [...] Eta haren helburua eskola behar luke, [...] haur hezitzaileak erabiltzen eta ikusten ikas dezan. Ikusi eta erabili, Espazioari eraso egin, Espazioa ikusi, esan eta menderatu, hori da artistaren jolasa, [...] eta hori da haurraren jolasetarako eredu aurrenekoa... (Hik Hasi, 2004, 43. or.).

Horrekin esan nahi duena da, artistak bere esperientzia eta bere hezkuntza estetikoa eman behar diola hezitzaileari, horrela, hezitzaileak heziketa estetikoa haurrari eman diezaion. Izan ere, hau zen Jorge Oteizaren obra artistikoaren funtsezko helburuetako bat:

... integrar las experiencias del arte contemporáneo en la preocupación política de la juventud, queriendo comprometer al artista con su misión activa de contagiar al niño@ y de colaborar directamente en la educación estética de los educadores del niño@ y de la juventud. (Apalategi, 2000, 66. or.).¹³

Oteizarentzat, hezitzaile on batek jakin behar du heziketa estetikoa haurrarentzat jostailu berri eta zoragarria balitz bezala hautematen, eta hura erabilgarri bihurtzen. Hezitzailea haurrarentzat eredu izango da. Baina hau lortzeko, ezinbestekoa da hezitzailearen prestakuntza estetikoa. Eta hori ezin da lortu *haurra nor den* ulertu gabe. Oteizak 3.2.1. atalean azaldu dugun definizioan bezala ulertzen du haurra.

Hezitzailearen eginbeharra, orduan, haurraren heldu inkontzientearen esanahia bilatzea izango da, haurraren nortasun helduaren helmuga bilatzeko eta eraikitzeko beharra sortu dadin. Azkeneko hori haurrari esperimendatzeko bitartekariak eskainiz lortuko da soilik, hala nola, eta beste batzuen artean: jolas estimuluak. (Apalategi, 2000, 68. or.).

Jorge Oteizaren esanetan, soilik heziketa estetikoa jaso duen hezitzailea izango da gai aurreko mekanismoa martxan jartzeko, eta haurra heltzen doan heinean *gizaki berria* sortzeko. *Gizaki berri* hori sortzeko, lehendabizi honako hau ulertu behar dugula zion

¹³ ... arte garaikidearen esperientziak gazterien kezka politikoan integratu, artista, haurra kutsatzeko duen misio aktiboan konprometituz eta haur eta gazte hezitzaileen hezkuntza estetikoarekin zuzenean elkarlanean arituz.

Oteizak: “aski dugu ulertzea gazteriarri zer falta zaion, haurrari eskaini behar zaiona jakiteko”.

Eta besterik gabe, ekar ditzagun gogora Oteizarentzat benetako hezitzaileak bete behar dituen irizpide-multzoa (Apalategi, 2003, 17. or.):

1. Bere gain hartu behar dituen eginkizunen eta mugen kontzientzia hartzeko gai izatea.
2. Bere eskuetan dauden ikasleak, [...] gizartearen erantzukizuntzat hartzea.
3. Pedagogia zientzia ikastetxeko partaide guztien jokabidea eguneratzeko balio duela sentitzea.
4. Ikastetxeak gizartean duen zereginaren kontzientzia hartu eta nork bere burua pedagogikoki prestatzeko leku egokia dela sentitzea.
5. Hezkuntza Zientzia benetako hezkuntzaren komunikazioa gauzatzeko tresna dela sentitzea.

“Benetako hezitzailea Hezkuntzari buruzko teorien barruan biziko da, baina soilik haiekin esperimintatzeko, [...] sekula ez proiektu pertsonal baten moduan. [...] Haurraren hezitzaileak bere hizkuntza indibidualki fabrikatuko du, baina xede sozial batekin: haurra gizakiarentzat prestatzea”. (Apalategi, 2003, 18. or.).

4.2.6. *Espazio sortzailea*

Atal honetan murgildu baino lehen, komenigarria deritzogu atala izendatzen duten terminoak argitzea. *Espazio* hitzari dagokionez, honako hau da Euskaltzaindiaren Hiztegiak diona (2020): “Gauzak kokaturik dauden hedadura” edota “Hiru dimentsioko puntu multzoa edo eskualdea”.

Espazio hitzarekin batera aurkezten zaigun hitza *sortzailea* dugu. Hitz honen definizioa emateko Euskaltzaindian bilatu ordez Real Academia Española-ra jo dugu, atal honetan mintzagai dugunari gehien hurbiltzen delarik (2020): “Que posee o estimula la capacidad de creación, invención, etc.”¹⁴ Hori da Real Academia Españolak ematen duen *sortzaile* (*creativo/a*) hitzaren definizioa.

¹⁴ “Sortzeko, asmatzeko gaitasunaz jabe dena edo estimulatzen duena”.

Behin terminoak definitu ditugula, esan dezakegu gaitasun sortzailea estimulatzen duen espazio egokiaz arituko garela, non norberaren ideiak edo proiektuak aurrera eraman daitezkeen.

Oteizaren kasuan, jarrera abangoardista asko bereganatu ditu. Beste ezeren gainetik sortzailea da, eskultura ez ezik beste esparru batzuk ere jorratu dituena. Ildo abangoardistatik Arte Ederren amaiera bultzatzen zuen, sortzeko eta erakusteko esparru tradizionalak kritikatu. Kultura eta gizarte modernoa indartzeko modurik onena eguneroko bizitzan artearen parte-hartze aktiboa zela uste zuen. Bere artea iraultzailea zen, gizarte aldatzeko tresna moduan erabiltzen zuen. Artearen nozioa osotasun baten barnean garatu nahi izan zuen, *Estetika* bestelako zientzien artean txertatuz. (del Valle de Lersundi, 2003)

4.3. Senitarteko esperientzia pedagogikoak

4.3.1. *Begirunezko hazkuntza*

Begirunezko hazkuntzaren inguruan hasi baino lehen, funtsezkoa deritzogu termino horiek argitzea. *Begirune* hitzarekin hasiko gara. Euskaltzaindiaren Hiztegiak aditzera ematen duen moduan (2020) *begirunea* “norbaiten edo zerbaiten aurrean, bere itzal edo balioagatik, begiratuki jokatzera eragiten duen sentimena” da. Eta zer esan nahi du *begiratuki jokatzera*? arretaz, kontu handiz jokatzera. Hortaz, *begirunea* errespetuaren baliokidea dela esan dezakegu.

Behin *begirune* hitza argi dugula, *hazkuntza* zehaztuko dugu. Euskaltzaindiaren Hiztegian ageri den moduan, *hezkuntzaren* sinonimotzat jotzen da. Bigarren horren definizioa garatuagoa ageri denez, hori da aditzera emango duguna lan honetan: “Gizakia, bere ahalmenak garatuz eta gizabidea erakutsiz, gizartean bizitzeko prestatzea eta gaitzea; horretarako erabiltzen diren bide edo sistemen multzoa”. (Euskaltzaindiaren Hiztegia, 2020).

Bi termino hauen esanahia argitzea komenigarria iruditu zaigu atal hau bere osotasunean ahalik eta hobekien ulertu ahal izateko. Gauzak horrela, ez da zalantzarik atal honetan haurrak errespetuan heztearen inguruan arituko garela.

Haurra, errespetu eta begirune osoz tratatu beharreko gizakia da. Gizakia den heinean, denok bezala pribilegioak dituen pertsona da, eta hala tratatu behar zaio, berak ere bere inguruko jendearekin horrela jokatzeko ikasteko. Eskola Berriaren agerpenarekin indartu den baieztapena dugu aurrekoa, eta honen ondorioz, zenbait pedagogok hezkuntza eredu ezberdinak eraman dituzte aurrera, hala nola, jarraian ikusiko ditugun Montessori, Malaguzzi eta Pikler. Hauekin batera, begirunezko hazkuntza oinarritzat duten zenbait eskola-esperientzia ere badaude. Gure kasuan, Congr s-Indians Kataluniako Eskola Publikoaren adibidea emango dugu aditzera.

Maria Montessori

Maria Montessori emakume italiarrarekin hasiko gara. Psikiatra eta pedagogo izan zen eta baita Italiako lehen emakume sendagilea bihurtu ere. Sendagile aritzea debekatu ondoren, adimen-urritasuna zuten hurrekin aritu zen lanean, eta horrek bere teoriaren oinarriak zehaztea eragin zuen.

Montessoriren iritziz, haurraren garapena etapetan antolatzen da eta ez da lineala. Bere metodoa 0-6 urte bitarteko haurrentzat diseinatu zuen, berak zeritzon *Haurtzaro txikiaren* etaparako, bere ustez gizaki baten bizitzaren etaparik garrantzitsuena zelako. Adin horretako haurren gaitasunetan sinisten zuen. Gauzak horrela, haurra material berezia manipulatzu zenbait kontzeptu eskuratzeko gai dela defendatzen zuen. Izan ere, Montessoriren ustetan, umeak mundua zentzumenen bitartez bereganatzen du; "haurrak ukituz, ikusiz, entzunez, dastatuz, mugituz eta usainduz ikasten duenez, zentzumen horiek guztiak era progresiboan lantzen dituzten materialak sortu zituen". (Lopez-Go i, 2018, 35. or.).

Oso kritikoa izan zen eskolan ematen den askatasun ezarekin. Izan ere, haurrari aske jarduten utzi behar zaiola uste zuen, garapena arriskuan jartzen duten oztupoak gainditzen ikas zezan. Akatsak prozesuaren parte baitira. Zenbait eskoletan haurrak pasibotasunean hezten direla aitortu zuen, geldirik egotera behartuak, diziplinatuak. Hori haurraren barneko munduaren kalterako baino ez dela defendatu zuen. Haurraren erritmoak errespetatu behar zirela sinisten zuen eta irakasleak haurraren bidea zuzendu behar zuela zioen. Erabakitze aukera eman behar die. Baina hurrek ez dute helduarengandik soilik ikasten; haien artean ere ikasten dute, ikastearekiko estimulazioa

handitzen delarik. Funtsean, Montessorik haurraren bilakaera errespetatzea defendatzen zuen.

Loris Malaguzzi

Jarraitzeko, Loris Malaguzzi aurkeztuko dugu, honako hau ere pedagogo italiarra izan zena. Bere pedagogia ez da soilik haurraren zentratzen. Izan ere, hezkuntza sistema gisa ulertzen zuen, non haurrek, helduek, inguruneak, familiek eta eskolak askotariko elkarreragina osatzen duten. Ikus ditzagun beraz, Malaguzziren hezkuntza-ikuspuntuaren zenbait printzipio.

Haurrari dagokionez, bere aniztasuna, autoulermena eta autoerregulazioaren garapenari mesede egiteko, nahiago zuen aurretik ezer programatua egotea. Irakaskuntzaren jarraikortasun eza defendatzen zuen, ikaskuntza haurraren edozein ekintzatan gertatu daitekeelako. Horrek eraman zuen eboluzio-etapetan oinarritutako programarik ez onartzera. Azken finean, hezitzailea mugatzea eragiten du horrek, haurrarendik zerbait espero izatera, eboluzio-etapek markatutako espektatiben arabera.

Hezitzaileentzat arriskatzea proposatzen zuen; haurrei eduki guztiak ongi planifikatu gabe aurkezteko arriskua hartzea, hain zuzen. Horrek haurraren ezagutzen eta ikaskuntzaren autoeraketa erraztuko zuela uste zuen, bestenez, egoera formaletan ipintzen ditugula salatuz.

Bere hezkuntza-ikuspuntuaren oinarrian pentsamendu-saretua dugu. *Euskal Herrian Erreferente diren Pedagogiak* liburuan Hoyuelos-ek esan zuen bezala (2018, 113.or.), “bere lanetan dio gertaerek sare formakoa izan behar dutela, hau da, ez dutela zentzu bakar batean erlazionatu behar”. Baieztapen hau argitzeko, sentitu, pentsatu eta ekitearen adibidea darabilte. Izan ere, gertaera saretuak dira horiek, sentitu, pentsatu eta ekin aldi berean egiten ditugun gertaerak direnez gero.

Hitz gutxitan esanda, Malaguzzi haurraren autoeraketan sinesten zuen pedagogo izan zen, komunikazioari eta zuzeneko ekintzei bere garrantzia emanez. Bere pentsamendua haurrekin izandako gertuko esperientzien ondorio da, baina ez ditu bakarrik haurrak biltzen, eskola sistema osoa biltzen duen eredua garatu zuen. Eta ezin ahaztu hezkuntza munduan arrasto gehien utzi duen ekarpena: haurrak bere pentsamenduak eta

sentimenduak komunikatzeko hamaika modu ezberdin dituztela. Adierazpen modu hauei *haurraren ehun hizkuntzak* deitu zien. Malaguzzik hurrei eskainitako olerkiaren esaldi batekin amaituko dugu:

“El niño tiene cien lenguajes. [...] Pero le roban noventa y nueve. La escuela y la cultura le separan la cabeza del cuerpo. Le dicen: de pensar sin las manos, de actuar sin la cabeza, de escuchar y no hablar, de entender sin alegría...”. (Loris Malaguzzi).¹⁵

Emmi Pikler

Begirunezko hazkuntzaren barruan beste erreferente ukaezina Emmi Pikler dugu. Pediatrian espezializatua, 1946an haur umezurtzentzako eskola bat sortu zuen, Loczy kalean. Haurraren jarduera librea eta erritmo naturalaren defendatzailea izan zen, eta garatutako printzipioak eta ikuspegiak bere bizitzaren alor askotan aplikatzen ahalegindu zen.

Vienan pediatria-espezializazioa egin eta gero, bertan eskuratutako printzipioak bere ogibidean txertatu zituen, bere lan egiteko modua berezi eginez: haurrarekin enpatia-harremana sortzea garrantzi handikoa iruditzen zitzaion, eta kontsultak maitasun handiz egiten zituen; gaixorik zeuden haurrak jolasean denbora luzez ibiltzen ziren, ez zuten egun osoa ohean igarotzen; umeek aire librean igarotzen zituzten eguneko ordu batzuk; eta debekatuta zegoen hurrek gehiago jan nahi ez zutela adierazten bazuten gehiago jatera behartzea.

Pikler-ek bere ibilbidean zehar hurrekin izan zuen esperientziari esker, ikusi ahal izan zuen helduak bere esku-hartzea eutsiz gero umea gai zela bere kabuz aurrera pausuak egiteko, bere burua aktibatuz eta jarduera gozamenaz burutuz. Hortaz, familiei esku-hartzea gutxitzeko eta behaketa lehenesteko gomendatzen zien.

Loczy-ko umezurtzen eskolan ordura arte egindako aurkikuntzak egiaztatzeko eta bere printzipioak txertatzeko aukera paregabea izan zuen. Eskola horretan lan egiten zuen ororen konpromezua haurraren garapen fisiko, psikiko eta afektibo harmoniatsua

¹⁵ “Haurrak ehun hizkuntza ditu. [...] Baina laurogeita hemeretzi lapurtzen dizkiote. Eskolak eta kulturak burua gorputzarengandik bereizten diote. Eta esaten diote: eskurik gabe pentsatzeko, bururik gabe jokatzeko, entzuteko eta ez hitz egiteko, poztasunik gabe ulertzeko...”.

lortzea zen, ume bakoitzaren erritmo naturalak eta mugimen askatasuna oinarritzat hartuz. Gauzak horrela, Loczy eskolaren eredu hau oinarritzko printzipioekin eraiki zen.

Haurraren bere buruaren eta inguruaren kontzientzia-hartzen laguntzea da lau printzipio horietako bat. Loczy-n berebiziko garrantzia eman zitzaion gertakizunen aurreikuspenari. Izan ere, zaintza momentuetan haurraren etengabeko komunikazioa egon behar duela defendatzen zuten, gertaera ulertu ahal izateko. Horrela, haurra eskubide osoko pertsona gisa tratatzen da.

Hurrengo printzipioa ekintza autonomoaren balioa dugu. Haurraren mugimendu askea eta jarduera espontaneoak errespetatu behar dira, eta jarduera hori bultzatzeko baldintzak sortu behar ditugu helduok: ingurune egoki eta seguru bat prestatzea, eta helduaren gehiegizko esku-hartzea saihestea.

Aurreko printzipioarekin harreman dialektikoa duen hurrengo harreman afektibo pribilegiatuaren balioa da. Izan ere, bi printzipio hauek elkarreragileak dira, Chantal de Truchis-ek adierazi zuen moduan, “haur txiki batek konfiantzazko eta maitasunezko harreman batean bilduta dagoenean soilik garatuko du jarduera askea”. (Quintela, 2018, 99. or.)

Eta Loczy eskolaren printzipio pedagogikoekin amaitzeko, osasun fisiko ona dugu. Oinarritzko printzipioa da aurreko hiruak aplikatzeko, baina aldi berean beste hiru printzipioak zuzen aplikatzearen emaitza ere bada.

Horrenbestez, esan beharra dago Pikler-ek abiarazitako printzipio pedagogikoek erantzun onuragarria izaten jarraitzen dutela gaur egun ere, nahiz eta testuinguruak aldatu egin den. Hainbat eta hainbat dira Pikler-en oinarri pedagogikoak darabiltzaten haur eskolak, helburu garbi batekin: haurraren ongizatearen eta garapen harmoniatsuen arteko oreka aurkitzea, ume bakoitzaren erritmoa errespetatuz eta taldeko bizitza zainduz. (Quintela, 2018).

Congrés-Indians. Escola pública d'educació viva i activa

Begirunezko hazkuntzaren inguruko atal hau eskola-esperientzia batekin amaituko dugu, froga dadin hezkuntza eredu hau eta aurretik aipatutako printzipioak praktikan jarraitzen dutela. Congrès-Indians dugu eskola-esperientzia hori. Bartzelonan kokatua dagoen eskola publiko da, non haurrak begirunezko giro batean hazten diren. Bertan,

eskola haurren bizi-prozesuekiko errespetuzko espazio gisa ulertzen dute, eta hori oinarri hartuta garatu dute eskolaren hezkuntza proiektua. Demokratikoa eta parte-hartzailea, pertsonekin konprometitua eta klima on batean zentratua dira hezkuntza proiektu horren ezaugarriak. Eskola horretako giro eta espazioak kalitatezkoak izaten ahalegintzen dira, eta baita eskola ingurunean txertatzen ere. Horiek dira Congr s-Indians eskolako hezkuntza proiektuaren adigai batzuk. (Congr s-Indians, 2014).

Bertako hezitzaileei dagokienez, esan dezakegu haurraren bizi-prozesuen laguntzaile direla. Ekintza berriak proposatzen dituzte, behatzen dute eta ez dute sekula epaitzen. Haurraren prozesuetan gehiegizko esku-hartzea saihesten dute, haurraren autonomiarako mesedegarria delarik. Hari beretik, giroak modu egokian prestatzen dituzte eta denbora antolatzen dute. Hezitzaileak ez ezik, familiak ere eskolako funtsezko parte dira, horrela haurren garapen prozesua laguntzeko komunitate bat sortuz.

Congr s-Indians 2010. urtean abiarazitako proiektua da, komunitatean eta komunitaterako sortua, haurraren bizi-prozesuak erdian jarriz. Eskolaren web gunean esaten den moduan,

...la illusi , el desig de participar i colaborar, l'emoci  per compartir, l'afany de, junts i juntes, dalt del mateix vaixell, tirar endavant un projecte no nom s educatiu, sin  un projecte de vida que ens acompanyar  a tots i a totes al llarg de molts anys. (Congr s-Indians, 2014).¹⁶

4.3.2. *Jose Antonio Sistiaga*

Jose Antonio Sistiaga 1932ko maiatzaren 4ean jaiotako margolaria da. Gaztea zelarik hasi zitzaion margotzeko bokazio hura, 6 urterekin, eta 13 urte besterik ez zituela egin zuen bere lehenengo marrazki erakusketa.

Parisen bizi izan zen 1955etik 1961 arte, eta han zegoela Arte Ederren Eskolan eman zuen izena, baina handik urte eta erdira eskola hura utzi egin zuen, arlo akademikotik kanpo arakatzeko beharra sentitu zuelako. Kanpoan bilatzen hasi zenean zenbait erakusketa ikusteko aukera izan zuen, Kandinsky-rena eta Fautrier-ena, besteak beste.

¹⁶ ...ilusioa, parte-hartzeko eta elkarlanean aritzeko grina, partekatzeko zirrara, denok elkarrekin ez bakarrik hezkuntza proiektu bat, baizik eta bizi proiektu bat aurrera eramateko grina, urte askoz gurekin egongo dena.

Baina benetan bere ibilbiderako erabakigarria izan zena, Manuel Duque margolaria ezagutzea izan zen, Sistiagak berak hurrengo lerroetan aipatzen duen bezala: “erabakigarria izan zen niretzat, figurazioa eta errealismoa utzi eta aurrera joateko, idealismo eta abstrakzio alderantz. Parisko erakusketa guztiak bisitatzen genituen. [...] Konturatu nintzen arte obraren atzean egia bat zegoela. Eta hura bilatzeari ekin nion”. (Apalategi 2015, 165. or.).

Baina dudarik gabe, geroago ezagutzera emango dugun Arno Stern ere beste inspirazio iturri bat izan zen Sistiagarentzako. Stern-ek Parisen zeukan *Académie du jeudi* margolaritza lantegian elkar ezagutu zuten eta hasieratik konektatu zuten. 1963an, Esther Ferrer donostiar artistarekin batera, Sistiagak Adierazpen Askeko lantegia edo Ostegunetako akademia sortu zuen, eta baieztatu zuen moduan, Stern-en lan-teknika bera aplikatu zuen: gerturatzen ziren hurrek askatasunez erabakitzen zuten zer egin, koloreak nahi bezala nahasten zituzten, esperimentatzeko lekua zen eta estimulatzea helburu zuten ere. (Apalategi, 2015, 176-178. or.).

1964-1965 bitartean, Elorrion abiarazitako Funcor Ikastetxean parte hartu zuten Sistiagak eta Ferrer-ek. Ikastetxe hura Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntza arteko neska-mutilen eskola izan zen, doakoa eta euskalduna. Frankismoaren garai horretan, erabat arrakastatsua izan zen proiektu hau, 1958an abiatu zena. Bi artista hauek eskolaren proiektu pedagogikoa pilotatu zuten. (Apalategi, 2015, 182. or.)

1961ean Sistiagak Célestin Freinet pedagogo ezagutu zuen Vence-ko eskolan (Frantziako Kosta Urdina). Haren ekarpen pedagogikoak oihartzun handia zuen garai hartan Europan barrena: testuinguruko premietan eta ikasleen interesetan oinarrituriko eskola eraikitzea, irakaskuntzan metodo naturalak, kooperatiboak eta teknika modernoak erabiltzea, etab. (Apalategi, 2015, 174-175).

Jorge Oteiza 1962an ezagutu zuen Sistiagak. Geroztik oso harreman estua izan zuten Oteiza hil artean. Adiskidetasun hura Oteizak Madrilgo Arte Garaikidearen Museoa egin zuen erakusketan hasi zen; bertan ezagutu zuten elkar, eta geroztik, harreman sakona eta iraunkorra izan zuten. Elkarrekin zenbait proiektu burutu zituzten, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, Elorriko Eskola Esperimentala eta Haur Unibertsitate Pilotuaren proiektua garatu zuten.

Jose Antonio Sistiaga artistaren biografikoan, aipatu beharra dago, bere margolaritza ez dela ohiko ekarpen plastikora mugatu, zinean ere aritu izana delako. Besteak beste, 1968an *Ere erera baleibu izik subua arua* titulua daraman film ezaguna margotzeari ekin zion.

Apalategiren (2015, 183. or.) esaldi batekin bukatuko dugu: “Baina hemen benetan azpimarratzea interesatzen zaiguna zera da, Sistiagaren ibilbide artistiko-pedagogikoa ez dela bere proiektuen froga publikoekin amaitzen, baizik eta jarraitu duela pribatuan, familiaren intimitatean...”.

4.3.3. Arno Stern

Arno Stern Kassel, Alemanian 1924an jaio zen. Bere bizitzaren lehenengo urteak armada naziarengandik ihesi eman zituen bere gurasoekin batera; Alemania, Frantzia, Suiza eta azkenik, Frantzia finkatu ziren, Montbeliard-en.

Gerraren ondoren, 1946an, Stern-ek 22 urte zituela, umezurtz-etxe batean lan egiteko eskaintza jaso zuen, gerraren eraginez umezurtz geratutako haurrak entretenitzen. Lana onartu zuen, baina haurrak nola entretenitu jakin gabe. Esperimentatu eta frogatu ondoren, marrazkigintzak haurren jakin-mina pizten zuela eta gozarazten zituela ikusi zuen. Umezurztegia ixtean, Parisen lantegi bat ireki zuen, arrakastatsua izan zena, *L'académie du jeudi*. 1950ean lantegi hau bere ospe gorenera iritsi zen, eta 33 urte eta gero itxi zen.

Bere bizitzaren urte batzuez munduan zehar ibili da, zibilizazio eta kultura ezberdinak ezagutzen, trazua aztertzeke xedearekin. Kontinente guztiak bisitatu eta eskolatu gabeko herriak aurkitu ditu, eta hauek erabiltzen zuten trazua aztertu ondoren, ondorio honetara iritsi zen: trazua berdina da kultura eta zibilizazio guztietan, baina soilik askatasunez gertatzen bada, kanpoko eraginik ez dagoenean. Gertakari horren erantzuna memoria organikoan aurkitu zuen. Izan ere, formulazioaren iturria memoria organikoa da, eta hori gizaki guztiok daukagu.

Berak sortutako lantegia dugu *Closlieu*, ikerketarako laborategizat ere erabilia. 15 pertsonako talde batentzako espazioa da, non ez dagoen kanpoko eraginik. Hara bertaratzen diren pertsonen artean ez dago inolako lehiarik eta pertsona bakoitzaren

izaera eta nortasuna diren moduan onartzen dira. Lantegi honetan hainbeste ikertutako *Formulazioa* aurkitu zuen Stern-ek, eta hura aztertzeari ekin zion.

Formulazioa, Arno Stern-en iritziz, sistema koherente eta unibertsala da, eta sistema hori emateko ezinbesteko baldintza batzuk bermatu behar direla dio: kanpo eraginik gabeko espazio bat; inguruan lanean dauden pertsonak jolas-kideak izatea, ikusleak baino; eta azkenik, erreferente baino, zerbitzari rola hartuko duen profesional baten presentzia. (*Arno Stern Official Web Site*, 2000).

Closlieu lantegian aurretik aipatutako baldintza horiek betetzen direnez, Formulazioa estimulaten da. Garrantzitsua deritzogu argitzea Stern-ek behin eta berriz azpimarratzen zuela Formulazioa artetik oso urrun dagoela. Hau egiaztatzeko, Stern-ek *Hik Hasi* aldizkarian esandakoak ekarriko ditugu gogora (2009): “Haurrak paper batean zerbait trazatzen duenean, jolasten ari da, ez da artea egiten ari, haren mundua sortzen ari da, eta horrekin ez du ezer jakinarazi edo erakutsi nahi. Ez dago neuririk eta ez dago interpretaziorik”. Horrekin esan nahi duena da trazua ez dela zerbait komunikatzeko helburuarekin egiten, ase gabeko beharrak asetzeko helburuz ematen da. Beraz, Formulazioa bat-bateko bulkada batetik jaiotzen dela esan dezakegu.

Horren harira, esan beharra dago Arno Stern oso kritikoa izan dela hezkuntza artistikoarekin. “Haurarentzat zorigaitza da”, aitortu zuen *Hik Hasi* aldizkarian (2009). Bere ustez, hezkuntza artistikoaren bitartez haurren formulazioarentzat kaltegarriak diren nozioak erakusten dira. Uste du haurren marrazkia ez dela existitzen, inposaketa bat dela. Izan ere, askotan eskatzen diegu haurrei marrazki bat egiteko, eta hori, Stern-entzat, inposaketa bat da, horrelakoetan haurrak helduaren desiorako egiten baitu marrazkia, eta ez era askean.

Formulazioa gizakiaren bizitzan oso goiz agertzen da, eta ez da inoiz desagertzen. Terapia bat baino, jolas bat da, eta nortasuna eraikitzen eta indartzen laguntzen duela adierazi zuen Stern-ek.

Arno Stern-en Formulazioa argitu ondoren, beharrezkoa deritzogu bere ekarpenean helduak jokatzen duen papera ezagutzea. Aurretik emandako baldintzen artean helduaren rola zegoen, zerbitzari rola hartu beharko zuena. Hori da Stern-en ustez helduak jokatzen duen papera, laguntzailea. Ez du zuzendu behar, aukerak bermatu

baizik. Ezin du epaitu ezta interpretaziorik egin, ez baitago neuririk ez eta komunikatzeko intentziorik, eta ezin du ezer aldarazi, formulazioa den bezalakoa delako, behin betikoa.

Arno Stern-en ekarpena eta biografiara egindako hurbilpen hau amaitzeko, esango dugu bere ekarpena pedagogiaren baitan oso ezaguna bihurtu dela, eta aurretik aipatutako begirunezko hazkuntzan erreferenteen artean dagoela. Eta hein handi batean, ezaguna bihurtu da orain arte ahaztutako giza gaitasun naturala zaintzea eta salbatzea proposatzen duelako. “Haurren trazatua errespetatzea haurra bera errespetatzea da”. (Hik Hasi, 2009).

5. OTEIZAREN ESPERIENTZIA ESTETIKOA HAUR HEZKUNTZAKO 2.ZIKLOAN GARATZEKO PROIEKTU PROPOSAMENA

5.1. Ezustekoaren eragina

2020ko martxoaren 14ean Covid-19aren eraginez alarma-egoera aitortu zen herrialde osoan. Nafarroan, martxoaren 13an eskola guztien itxiera agindu zen, osasun-krisialdiarengatik.

Hori dela eta, gure Gradu Amaierako Lanaren jatorrizko orientabidea bertan behera geratu da eta aldatzeko beharrean aurkitu gara: proposamen baten diseinu eta gauzatzetik, programazio didaktiko baten diseinu hutsera.

Hasiera batean Jorge Oteizaren esperientzia estetikoaren inguruan proposamen bat diseinatu eta Mendialdea II Eskola Publikoan eraman behar genuen aurrera. Horretarako, Jorge Oteiza Fundazio Museoarekin harremanetan jartzea aurreikusitu genuen, proposamenaren diseinuari begira zenbait orientabide jasotzeko. Baina osasun-krisialdia dela eta ezin izan gara haiekin bildu, eta aurreikusitakoa birplanteatu behar izan dugu.

Esan bezala, hasierako asmoak aldatu egin ditugu. Izan ere, hasiera batean gure proposamena Mendialdea II eskolako Haur Hezkuntza 2.ziklo osorako pentsatua zegoen, baina alarma-egoeraren eraginez eskolak itxita mantendu direnez, ez dugu aukerarik

izan 4 eta 5 urteko planteamendua gertutik ezagutzeko. Beraz, azkenean 3 urteko geletan aplikatzeko diseinatu da.

5.2. Kasu azterketa gure ikerketa metodo bezala

Aitzindariak

Álvarez-en lanean adierazten den bezala (2012), gizarte zientzien alor ezberdinetan areagotu egin den ikerketa metodoa da kasu azterketa. Hala ere, metodo honen nondik norakoak ez daude oso zehaztuak. Gutxi batzuk dira kasu azterketa definitzen eta ezaugarriak zehazten ahalegindu diren lanak: lanik aipatuenak Yin (1989), Stake (2005) eta Grandon Gill's-enak (2011) dira. Azken horiez gain, beste lan batzuk ere bere ekarpena egin diote ikerketa metodo honi: Hammersley (1986), Ragin eta Becker (1992), Martínez Bonafé (1990), López-Barajas Zayas (1996) eta Angulo eta Vázquez (2003), beste batzuen artean. (Álvarez, 2012).

“Se trata de una metodología vinculada a la sociología clásica a través de autores como Spencer, Weber o Merton y que tiene su punto álgido en la Escuela de Chicago”. (Álvarez, 2012).¹⁷

Definizioa

Álvarez-en lanean kasu azterketa ikerketa metodologiatzat ulertzen da. Autore batzuen arabera, ikerketa metodo honen bitartez kausalitatearen azterketa egiten da eta teoria gisara irudikatzen da. Beste batzuentzat, metodo honek hipotesiak formulatzeko eta erabakiak bideratzeko gaitasuna du.

Pérez Serrano, Goode eta Hatt edo Yin autoreek kasu azterketa definitzeko saiakerak egin izan dituzte. Hauen artean Yin-ek emandako definizioa egoki deritzogu, gure kasuarekin lotura izan dezakeelako: “... un estudio de caso es una investigación empírica dirigida a investigar un fenómeno contemporáneo dentro de su contexto real por la

¹⁷ “Sociología klasikoarekin lotutako metodología da, Spencer, Weber edo Merton bezalako autoreen bitartez, eta bere goren unea Chicago-ko Eskolan duena”.

imposibilidad de separar a las variables del estudio de su contexto". (Álvarez, 2012, 3. or.).¹⁸

Definizio bakar bat ez ematearren, Yin-en definizioa Pérez Serranok emandakoarekin kontrastatuko dugu. Azken autore honentzat ikerketa metodo hau gertakari edo erakunde baten deskribapen trinkoa, holistikoa eta analisisa da. (Álvarez, 2012, 3. or.).

Ezaugarriak

Kasu azterketaren ezaugarriak definitu baino lehen, komenigarria deritzogu Cabreiro López eta Fernández Morante-ren hitzak aipatzea, modu labur eta argi batean azaltzen baitute metodo honen egitekoa:

Mediante este método, se recogen de forma descriptiva distintos tipos de informaciones cualitativas, que no aparecen reflejadas en números si no en palabras. Lo esencial en esta metodología es poner de relieve incidentes clave, en términos descriptivos, mediante el uso de entrevistas, notas de campo, observaciones, grabaciones de vídeo, documentos. (Álvarez, 2012, 3. or.).¹⁹

Álvarez-en lan honetan kasu azterketen oinarritzko ezaugarri batzuk zehazten dira (2012): iker-objektuaren deskribapen testuinguratua egiten dute; ikerketa holistikoak dira; errealitate bakoitzaren berezitasunak islatzen dituzte; heuristikoak dira; ez dira hipotetikoak, behatzen da, ondorioak ateratzen dira eta ondorio hauen berri ematen da; harreman eta elkarreraginetan oinarritzen dira, eta ikertzailearen parte hartzea eskatzen dute; gertakari garaikideak ikertzen dituzte; datu-iturri anitzak erabiltzen dituzte eta azkenik, arrazoinamendua induktiboa da.

Motak

¹⁸ "...kasu azterketa gertakari garaikide bat bere testuinguru errealean aztertzeraz bideratutako ikerketa enpirikoa da, ikerketaren aldagaiak ezin baitira bere testuingurutik bereizi".

¹⁹ Metodo honen bitartez informazio kualitatibo ezberdinak modu deskriptibo batez jasotzen dira, zenbakietan adierazi ordez, hitzen bidez adierazten direnak. Metodologia honetan funtsezkoa, giltza-gertakariak baldintza deskriptiboetan nabarmentzea da, elkarrizketa, eremu-ohar, behaketa, bideo grabaketa edo dokumentuen erabileraren bidez.

Kasu azterketa errealitate bakoitzera egokitzen denez, motak askotarikoak izan daitezke. Álvarez-en artikuluan (2012), kasu azterketa motak multzoka azaltzen dira, honen asmoaren, informazio bilketaren teknikak eta informearen arabera antolatua.

Stake autoreak ikerketaren asmoaren arabera honako taldekatze hau proposatzen du:

- **Kasu azterketa intrintsekoa:** Interesekoa den gai batean sakontzen duen mota da.
- **Kasu azterketa instrumentala:** Kasua gai batean sakontzeko edo teoria bat doitzeko aztertzen da.
- **Kasu azterketa kolektiboa:** Ikerketa gertakari, populazio edo egoera orokor batean zentratzen da.

Heras Montoya-k antolaketa desberdin bat proposatzen du, ikerketa objektua eta informazioa biltzeko tekniken arabera:

- **Azterketa antolatzailer historikoa:** Erakunde batek denboran zehar duen garapena aztertzen da, eta honetarako elkarrizketak edo dokumentu-analisiak erabiltzen dira.
- **Bizi-istorioen azterketa:** Pertsona baten azterketa da, giza-jokabidea ulertzeko, eta elkarrizketa da informazioa biltzeko teknika.
- **Azterketa behagarria:** Erakunde bat aztertzen da, eta informazio bilketarako teknika behaketa parte-hartzailea da.

Bukatzeko, Pérez Serrano-k multzokatze hau proposatzen du, txostenari begira:

- **Kasu azterketa deskribatzailea:** Aztertutako gertakaria txosten zehatz batean aurkezten da.
- **Interpretaziozko kasu azterketa:** Deskribapen zehatzak egiten dituen mota da,
- **Kasu azterketa ebaluatzailea:** Ikerketa objektuaren errealitatearen deskribapena egiten da iritziak eman ahal izateko.

Estrategiak

Kasu azterketa baten sinesgarritasun eta datuen zorroztasunaz ziurtatzeko, honako estrategia hauek planteatzen dira Álvarez-en artikuluan (2012): froga anitzetan oinarritzea, ikerketan inplikatuak izango direnen arteko negoziazioa, eta azkenik, inplikaturako horien artean datuak balioestea.

Abantailak/desabantailak

Ikerketa metodo honek bere abantailak ditu: begi-bistaz ezagutzeko zailak edo ezezagunak diren gertakariak aztertu daitezke; gertakari horren inguruko informazio zehatza ematen dute; hezkuntza errealitate konplexuak argitan uzten dituzte eta oso metodo aproposa da banakako ikerlariarentzat.

Dena den, mugak dituen eta kritika ugari jaso dituen metodoa ere bada. Batez ere ikerketa kuantitatiboak kritikatu izan du kasu azterketa, aitortuz metodo honen bitartez eskuratutako emaitzak ezin direla orokortu, ikerlariaren subjektibotasunaren presentzia handia dagoela eta ikertuak diren sujetuen bizimodua aldatu daitekeela, ikerlariak denbora gehiegiz egoten baita iker-eremuan.

5.2.1. Mendialdea II eskolako Haur Hezkuntza 2.zikloko irakasleei zundaketa

Oteizaren ekarpenaren inguruko proposamena diseinatzen hasi baino lehen, Haur Hezkuntzako 2.zikloko irakasle guztiekin zundaketa bat egitea komenigarria iruditu zitzaigun, eskolak Jorge Oteizaren ekarpenarekin izandako harremana ezagutzeko eta irakasleek Oteizaren esperientzia estetikoarekin lana egin ote zuten jakiteko.

Hori dela eta, 2020ko otsailaren 24ean *Google Inprimakiak* plataformaren bitartez galdetegi bat bidali zitzaien Mendialdea II-ko Haur Hezkuntza 2.zikloko irakasle guztiei, tutore zein espezialista. Zazpi galderez osatutako galdetegia zen, non irakaslearen izena, eskola honetan lanean daraman urte kopurua, Haur Hezkuntzako tutorea den ala ez, zein mailatan egiten duen lana, hurrekin Oteizaren hezkuntza estetikoaren inguruko lanik egin ote duen eta zein motatakoa, eta azkenik, Mendialdea IP-k Jorge Oteiza Fundazio Museoarekin harremanik izan ote duen galdetu zitzaien.

Osozara 10 erantzun jaso genituen. 10 erantzun horietatik, lauk bakarrik adierazi zuten hurrekin Oteizaren hezkuntza estetikoaren inguruan lana egin izan zutela, hau da, inkestatuen %40ak. Gainontzeko %60ak aldiz, ez du inoiz Oteizaren ekarpenaren inguruko lanik egin hurrekin. Baietz erantzun zutenen artean hiruk beste eskola batean egon bitartean izan zela adierazi dute, museoa bisitatu eta gelan esperientzia estetikoaren inguruan lana egin zutela.

Interesatzen zitzaigun beste galderari, hots, Mendialdea II-k Jorge Oteiza Fundazio Museoarekin harremanik izan ote duten, denek ezetz erantzun zuten, inkestatuen

%100-a. Horrek esan nahi du Mendialdea II-n ez dela Jorge Oteiza museoarekin harremanik izan ezta bere ekarpen estetikoaren inguruko lanik egin hurrekin.

Dena den, zundaketa horren bitartez jasotako datu batzuk jada ez dira baliagarriak. Izan ere, hasiera batean ziklo osorako diseinatutako proposamena izan behar zuenez, tutore eta espezialista guztiei bidali zitzaien. Baina konfinamenduaren eraginez, soilik hiru urtekoentzat diseinatzea erabaki genuen. Aipatzekoa da hiru urtekoen tutore eta espezialisten artean hiruk baieztatu zutela hurrekin Jorge Oteizaren hezkuntza estetikoaren inguruko lana egin izana.

5.3. Programazioaren proiektu metodologikoa

Aurretik aipatu dugun moduan, jarraian aurkeztuko dugun programazio didaktikoa Berriozarko Mendialdea II Ikastetxe Publikoko Haur Hezkuntza 2.zikloaren lehenengo mailan txertatzeko pentsatua dago, ikaskuntza-giroen metodologian oinarritzen direlarik. Gauzak horrela, Jorge Oteizaren ekarpen estetikoari jarraiki giro bat diseinatzea izan da gure proiektu metodologikoa.

Gure programazio didaktikoaren diseinuarekin hasi baino lehen, komenigarria deritzogu testuinguruan kokatzea. Horretarako, ikaskuntza-giroen inguruko zertzelada batzuk emango ditugu, aurrerago aurkituko duguna hobe ulertzeko asmoarekin. Ondoren, Mendialdea II eskola publikoak metodologia honekin izandako esperientzia laburki azalduko dugu.

Eskola Berriaren mugimendu pedagogikoarekin batera, hamaika metodologia berritzaile agertu zaizkigu, haurren interesak erdian jartzen dituztenak, hots, haurra ikaskuntza-prozesuaren protagonista dela defendatzen dutenak. Ikaskuntza-giroak metodologia berritzaile horien eredu dira, beste askoren artean.

Giroak espazioa, denbora eta baliabideak modu zehatz batean antolatzen dituen metodologia da, harremanatzeko, esperimentatzeko, jolasteko eta aztertzeke aukerak ugarituz, espazio hezitzaile esanguratsu bat lortzeko asmoarekin.

...los espacios educativos significativos son ambientes de aprendizaje que favorecen no sólo la adquisición de múltiples 'saberes', sino que fortalecen las competencias afectivas, sociales y

cognitivas necesarias para enfrentar de manera creativa las demandas crecientes del entorno durante los primeros años de vida. (Riera, Ferrer eta Ribas, 2014, 25. or.).²⁰

Giroak haurraren jakin-mina pizten duten objektu eta material estimulagarriak hornituak daude. Askatasunez mugitzeko aukera ematen zaie bertan, haurrak protagonistak bihurtzeko eta euren ikaskuntza-prozesuaren jabe egin daitezkeen; erabakitzeke ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta bizikidetzazko jarrerak bereganatu ahal izango dituzte modu honetan.

Ikaskuntza-giroek berezkoak dituzten ezaugarriak ezagutzeko Riera, Ferrer eta Ribas-ek (2014, 33. or.) aipatutakoa hartuko dugu kontuan, modu motz baina argi batean laburbildu baituzten metodologia honen nondik norakoak:

- Umeak adin ezberdinetako hurrekin eta heldu ezberdinekin elkartzen dira.
- Haurrek nora joan eta zer egin erabakitzen dute.
- Jarduerak ez ditu hezitzaileak gidatzen.
- Espazioek eta materialek haurra elkar eragitera gonbidatzen dute.
- Jolasa eta miaketa libre gailentzen dira.
- Komunikazio eta adierazpen hizkuntza ezberdinak modu integral batean tratatzen dira.

Giroak karakterizatzen dituzten premisa hauen bitartez testuinguru estimulagarri eta segurtasun emozionala bermatzen da, “[...] para lograr que: no pierda nunca la curiosidad por aprender; crezca seguro de sí mismo y de su entorno; experimente, viva el mundo y lo transforme, dándole sentido; desarrolle las competencias básicas para adaptarse a nuevas circunstancias”. (Cifre-Mas eta Adrover, 2012, 17.or.).²¹

Hau guztia lortzea irakaslearen esku egongo da. Lehen aipatu bezala, hezitzailea ez da jardueren gidaria izango, bigarren plano batera pasako da, haurrei protagonismo osoa

²⁰ ... espazio hezitzaile esanguratsua mesedegarriak dira ez bakarrik ‘jakintza’ anitzen jabetzean, mesede egiten dute baita bizitzaren lehenengo urteetan handiagotzen ari diren testuinguruaren eskaerei modu sortzaile baten bidez aurre egiteko beharrezkoak diren konpetentzia afektibo, sozial eta kognitiboen garapenean ere.

²¹ “ikasteko jakin-mina inoiz ez galtzeko; bere buruarekiko eta testuinguruarekiko segurtasunaz hezteko; esperimendu dezan eta zentzua emanda, mundua bizi eta eraldatu dezan; oinarrizko gaitasunak gara ditzan egoera berrietara egokitu ahal izateko”.

itzuliz. Bere eginbeharra akonpainamenduzko rolera eta behaketara mugatuko da, baina berak izango du espazioa eta denboraren ardura; haurren interesak asebetetzen duen espazioa material egokiz hornituko du, proposamenak sortuko ditu, arauak errespetatuak izateko ahalegina egingo du... Orokorrean, espazioa eta denbora antolatuko du, haurren interesak eta beharrak kontuan hartuz.

Modu laburragoan esanda, ikaskuntza-giroak tarte batez erreferentziazko gelatik alde egiteko eta beste espazio eta pertsona batzuk ezagutu eta haiekin elkar eragiteko metodologia berritzaileak dira, non haurren garapen integrala bermatzen den.

Behin metodologia honen nondik norakoak ezagututa, Mendialdea II Ikastetxe Publikora egingo dugu salto. Izan ere, Haur Hezkuntzan ikaskuntza-giroen metodologia darabilen eskola da, eta gure programazio didaktikoa eskola horretarako pentsatua dagoenez, metodologia honekin izan duten esperientzia ezagutuko dugu. Informazio hori Mendialdea II-ko zuzendariari egindako elkarrizketa baten bidez eskuratu dugu. **(I.Eranskina:** Giro metodologiaren inguruan HHko irakasle eta eskolako zuzendariari elkarrizketa)

Mendialdea II Ikastetxe Publikoan duela 10-12 urte hasi zirela ate irekien metodologiarekin, giroak azken finean. Momentuko lan egiteko moduak ez zituen bertako irakasleak asebetetzen eta eraberritzeko grina izan zen metodologia aldaketa eragin zuen faktoreetako bat. Baina benetan aldarazi zuena Bergaran egindako psikomotrizitate praktika hezitzaile eta prebentiboaren inguruko formazioa izan zen, Bernard Aucouturier-en pedagogian oinarritua.

Zuzendariak dioenez, formazio horretan jasotakoa interesgarria suertatu zitzaion eta erabateko zentzua ikusi zioten; irakasleak izan behar dituen jarrerak oso ongi definituak daudela, haurrek modu autonomoan aukeratzen dutela euren jolasa, behaketarako toki pribilegiatua dela... Hortaz, psikomotrizitatearen praktikak darabilen eskema antzekoa geletan aplikatzea interesgarria izan zitekeela erabaki zuten.

Bergaran egindako ikastaro horretan beste eskoletako ereduak ezagutzeko aukera izan zuten. Gipuzkoako Antzuola herri-eskola Mendialdea II-ko irakasleentzat erreferente garrantzitsua izan zela adierazi du zuzendariak. Noski, oso bestelakoak dira eskola

hauek, Antzuolan ikasle kopurua txikiagoa baita, baina eredutzat izan dute metodologia berria txertatzeko prozesuan.

Prozesu guztietan bezala, behin ikaskuntza-giroetan martxa hartuta, gabeziez eta zailtasunez konturatu izan dira. Eraldaketa guztiak dira gorabeheratsuak. Koordinazio handia eskatzen duen lan egiteko modua da, hezitzaileen artean beste gela batzuetako haurren informazioa trukatu behar delako, beraz, behaketa ez da batere erraza. Etengabe birplanteatu behar izan dute lan egiteko modua, eta horrek batzuetan motibazioa galtzea eragin die. Baina, zuzendariaren arabera, azkeneko ikasturtean eskola osoak egindako *Ikaskuntza Kooperatiboa/Kooperatzen Ikasi* formazioa motibazio-dosia izan da aurrera jarraitzeko eta ibilitakoaz hausnartzeko.

Zailtasunak zailtasun, abantaila izugarriak dituen metodologia dela deritzote: umeen garapena eta beharrak errespetatzen ditu; saioak irauten duen denboraz arduratu beharrean lasaitasunez erritmo naturala kontuan hartzen da; haurrei autonomiarako, autozaintetarako, elkarrenganako komunikaziorako edo adinen artean harremanatzeko aukera ematen die... Material aldetik ere abantaila ugari ditu; gela handi batean jakin-mina pizteko material egokiak daude, espazioa ongi antolatua dago, hortaz, errazagoa da jolasean plazerra aurkitzea, txokoetan ez bezala, espazioa murriztagoa baita.

Aipatu bezala, haurraren mugimendu autonomoa eta erritmoa errespetatzen dira ate-ireki edo giroekin. Hori lortzeko garrantzitsua deritza ezagutzea prozesu bakoitza nolakoa den (aurreidazketa, marrazketa, eraikuntzak egitea...), jakiteko haurra zer nolako momentuan dagoen eta horren arabera, gauza bat edo beste proposatu ahal izateko.

Esanak esan, lan metodo batetik bestera igarotzeak zailtasunak eta zalantzak dakar. Mendialdea II-n argi zuten lan-metodo horrek ez zituela asebetetzen, beraz, beste metodologia batekin arriskatu ziren. Hasiera batean errotiko aldaketa izan zela onartzen du, baina geroago konturatu ziren gauzak ez direla zertan txuri edo beltzak izan behar, eta aurreko metodologiatik zenbait material eta planteamendu berreskuratu zitekeela onartu zuten, garai berrietara egokituz. Gorabeheraz jositako prozesua, azken finean.

Gauzak horrela, geroztik 3 urtetatik 6 urtetara ate-irekiekin funtzionatzen dute Mendialdea II-n. 3 urtetan otsailean hasi dira metodologia honekin, goizeko lehenengo

bi saioen bitartean. Kasu honetan ez dute beste adinekoekin egoteko aukera, 3 urteko gelak 4 eta 5 urtekoen geletatik urrun baitaude. Dena den, 3 urteko hiru gela daudenez eta haien artean komunikatuak daudenez, haien artean egiten dituzte ate irekiak. 3.A gela jolas sinbolikoaren giroa da, 3.B gela mahai jolasena eta 3.C gela eraikuntzen giroa da. Goizeko harrera egin ondoren ateak irekitzen dituzte. Eta jolasa amaitzeko 5 minutu geratzen direnean, gelak itxi eta bertan geratu diren hurrek gela jasotzen dute.

4 eta 5 urteko gelen kasuan, goizeko eta arratsaldeko bi saioak erabiltzen dituzte giroentzako. Gela hauek elkarrekin pasabide berean daudenez, beste adinekoekin harremanatzeko aukera dute. Gelak ireki baino lehen *sintonia* egiten dute, haurrak euren gorputzarekin konektatzeko eta lasaitzeko. Ondoren, korroan harrera egiten dute eta norbaitek zerbait partekatu nahi izatekotan aukera izaten du. Amaitzean, gelak irekitzen dituzte eta hurrek giro batera edo bestera igarotzeko aukera dute. 4 eta 5 urtekoen pasabidean *herria*, *artistak*, *arkitektoak* eta *ikerlariak* giroak daude.

5.3.1. Programazio didaktikoaren diseinu teorikoa

Gure Gradu Bukaerako Lana Oteizaren ekarpenaren ezaugarriak kontuan hartuta, Mendialdea II Eskola Publikoko Haur Hezkuntzako 2.zikloko 3 urtekoentzat giro bat diseinatzean datza. Jarraian, giro honen diseinu teorikoa zehaztuko dugu.

Justifikazioa

Proposamen hau Jorge Oteizaren ekarpen estetikoa eta Mendialdea II-ko Haur Hezkuntzako ate-irekiak uztartzeko jakin-minaren emaitza da.

Oteizak hezkuntzaren inguruan zuen ikuspegia aztertuta eta hura kontuan hartuta, honako hau izan da diseinuan aurrera egiteko planteatu dugun galdera: Zer egon beharko luke Oteizaren ekarpena biltzen duen giro batean? Berehala topatu genuen erantzuna: giro horrek haurrak bere hizkuntza guztiak modu integral batez jorratzea ahalbidetuko du eta zentzumen guztien bitarteko esperimazioan oinarrituko da. Gauzak horrela, bi printzipio horiek kontuan hartuta Oteizaren giroaren diseinura ekin genion, haurraren sentikortasun artistikoa eta sortzaile naturala garatuko duena. Azken finean hori zen Oteizak bilatzen zuena, gizakiaren sentikortasuna eta sormena garatzea.

Testuingurua

Diseinua azaltzen hasi baino lehen, komenigarria deritzogu testuinguruan kokatzea. Mendialdea II Ikastetxe Publikoa Berriozar herrian kokatua dago, Ezkaba mendiaren magalean, Iruñeatik 6 kilometrora, hain zuzen. Estatistika Institutu Nazionalaren azken datu ofizialek 2019an 10.426 biztanle erregistratu zituzten. Beraz, udalerrri handia dela esan daiteke. (Berriozarko Udala, 2020).

Ikastetxeari dagokionez, D ereduan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketak burutzeko eskaintza duen eskola da. Nahiz eta Berriozarren kokatua egon, eskualdeko eskola da, beraz, Berriozar, Xulapain, Berriobeiti eta Iza bailaretako ikasleak bertaratzen dira. Gaur egun, ikastetxean osotara 403 ikasle, 309 familia eta 38 irakasle dira.

Haur Hezkuntzako 2.zikloko lehenengo mailari dagokionez, 3 urteko hiru gela daudela aipatu beharra dago. Hiru gela horien artean 52 haur daude osotara. Heldutasunaren araberako aniztasun handia dago gela hauetan, izan ere, batzuk nahiko jarrera heldua daukate, baina beste batzuk oraindik autonomia eta identitatea garatzeke daukate. Hizkuntzaren garapen mailaren aldetik ere oso anitzak dira talde hauek; etxean euskara darabilten familia ugari daude, baina gaztelania da familien artean nagusitzen den hizkuntza. Gutxi diren arren, beste herrialde batzuetatik eratorritako familiak ere badaude, adibidez, Brasildik edo Saharatik. Honek esan nahi du ikasle askorentzat eskola izan dela euskararekin lehen kontaktua izateko bidea, beraz, gutxinaka-gutxinaka euskara asimilatzen doazen taldeak dira. Gainera, ezin dugu ahaztu osasun-krisialdiak eragindako ikasturte akademikoaren etena ez diola mesederik egiten euskararen bereganatzeari, esan bezala haur askoren etxeetan ez baita euskara entzuten.

Helburu orokorrak

Programazio didaktiko honen bitartez Haur Hezkuntzako 2.zikloa arautzen duen curriculumaren hiru arloetako helburuak lortuko dira.

Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala arloari dagokionez, helburu hauek hartuko dira kontuan:

- Eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko ohiko jarduerak eta eginkizun errazak modu autonomoan egin; autokonfiantzazko sentimendua eta ekimenerako gaitasuna handitu eta bere oinarritzko beharrak asetzeko estrategiak garatu.

- Bere buruaz irudi egokia eta positiboa osatu, besteekin harremanen eta norberaren ezaugarrien, ahalmenen eta mugen identifikazioaren bidez eta autoestimazioko eta autonomia pertsonaleko sentimenduak garatu.
- Bere jokabidea besteen beharretara eta eskakizunetara egokitu, errespetuko, laguntzako eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak garatu eta mendetasuneko nahiz nagusitasuneko jokabideak baztertu.

Ingurunea ezagutzea arlotik, berriz, honako helburu hauek:

- Gero eta modu egokiagoan eta pozgarriagoan besteekin harremanetan jarri eta jokabide sozialeko arauak pixkanaka barneratu eta beren jokabidea horietara egokitu.
- Abilezia matematikoetan hasteko, elementuak eta bildumak funtzionalki manipulatu, haien ezaugarriak identifikatu eta haien arteko taldekatze, sailkapen, hurrenkera eta kuantifikazio harremanak ezarri.

Eta amaitzeko, *Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena* arloan, jarraian ditugun helburuak lortzera bidean egingo dugu lana programazio didaktiko honetan:

- Hizkuntza erabiltzea ikasi, irudikatu, komunikatu, gozatu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko; ahozko hizkuntza besteekin harremanetan egon eta bizikidetzara erregulatzeko bide gisara baloratu.
- Hizkuntza desberdinetan azaldutako arte lanak ezagutzen hasi eta teknika batzuk erabiliz irudikapen eta adierazpen artistikoko jarduerak egin.
- Literaturako testu batzuk ulertu, errepikatu eta sortu, eta haiekiko estimuko, gozameneko eta intereseko jarrerak garatu.

Zehaztu ditugun helburu hauek orokorrak dira, Oteizaren ikaskuntza-giroaren bitartez lortzen saiatuko garenak. Hala ere, ondoren ikusiko dugun moduan, azpi-giro bakoitza helburu zehatzak lortzeko diseinatua dago.

Edukiak

Jorge Oteizaren ekarpen estetikoari jarraiki diseinatutako ikaskuntza-giro honetan curriculumaren hiru arloetako zenbait eduki landu ahalko dira.

Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala arloaren honako eduki hauek jorratuko dira:

- Antolaketako, iraunkortasuneko, arretako, ekimeneko eta esfortzuko ohitura oinarritzkoak. Norbera eta besteek ongi egindako lanaren balorazioa eta atsegina.
- Harremanetan sartu eta lankidetzan aritzeko trebetasunak eta helduekin nahiz adin berekoekin harreman afektiboak ezartzearen aldeko jarrera.
- Espazioak, elementuak eta objektuak modu egokian erabiltzea. Behar dutenean laguntza eskatzea.
- Zentzumenen erabilera: sentsazioak eta pertzepzioak.

Ingurunearen ezagutza arloaren kasuan, jarraian aurkezten ditugun edukiak lantzeko aukera egongo da ikaskuntza-giro honetan:

- Jokabideko jarraibide egokiak pixkanaka hartu, modu autonomoan eta elkarrizketaren bidez eguneroko bizitzako gatazkak partekatu eta konpontzea, arreta berezia emanez neskatoen eta mutikoen arteko harreman orekatuari.
- Objektuen eta gaien ezaugarriak eta nolakotasunak atzematea. Elementuak sailkatu eta haien ezaugarriak eta mailak aztertzeke interesa.
- Oinarritzko gorputz geometriko batzuk aztertzea.
- Ingurunean dauden objektuak eta gaiak, haien funtzioak eta eguneroko erabilerak. Ingurunea aztertzeke interesa eta bere nahiz besteen objektuak errespetatu eta zaintzeke jarrera.

Eta azkenik, *Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena* arloan zehazten diren eduki hauek eskuratu ahalko dira:

- Ordenagailua, kamera, soinuaren eta irudien erreproduzitzailak eta bestelako baliabide teknologikoak erabiltzen hastea.
- Ahozko hizkuntza gero eta gehiago erabiltzea gertaerak gogoratu eta kontatu, jakintza arloak aztertu, ideiak eta sentimenduak adierazi eta bere eta besteen jokabidea erregulatzeko.
- Dibertitu eta ikasteko hizkuntza jokoetan era sortzailean parte hartzea: aholpeka, azkar, mantso... hitz egin edo erreztatzea. Adierazkortasuneko jokoak, erritmora egokitzea.
- Keinuak eta mugimenduak esperimintatu eta adierazi eta komunikatzeko baliabideak direla ikastea.

- Pertsonaiak, gertaerak eta egoerak naturalki aditzera ematea bakarkako nahiz taldekako joko sinbolikoetan.
- Dramatizazio jardueretan, dantzetan, joko sinboliketan eta gorputz adierazpeneko bestelako jokoetan parte hartzea.
- Plastika-hizkuntzaren osagai batzuk esperimentatu eta aztertzea (linea, forma, kolorea, testura, espazioa...).
- Ipuinak, kontakizunak, elezaharrak, poesiak, errimak edo asmakizunak, bai tradiziozkoak, bai gaur egunekoak, entzun eta ulertzea, atsegin hartu eta ikasteko bide gisara.
- Ahotsaren, gorputzaren, eguneroko objektuen eta musika tresnen soinu-ahalbideak ezagutzea. Soinuak musika jo eta sortzeko erabiltzea.
- Inguruko obra plastikoak interpretatu eta gero eta egokiago baloratzea.
- Gertaerak, sentimenduak, emozioak, bizipenak edo ametsak adierazi eta komunikatzea marrazkien eta material eta teknika desberdinekin egindako produkzio plastikoen bitartez.

Metodologia

Aurretik modu sakonago batean azaldu dugun bezala, proposamen hau aurrera eramateko ikaskuntza-giroez baliatuko gara, zehaztutako helburu orokorretara iristeko bidea izango delarik. Horretarako denbora, espazioak eta baliabideak honela antolatuko ditugu:

- Denboralizazioa

Giro hau ebaluazio-aldi batez mantentzeko pentsatua dago, hau da, hiru hilabetez. Aurrera eraman ahal izateko ikasturteko azken hiruhilekoa deritzogu aproposena; izan ere, ikasturteko garai horretarako haurrak heldutasun gehiago eskuratua izan dezakete eta eskolara ohituak egongo dira, lehenengo bi hiruhilekoetan ez bezala, egokitzen-aldiak denbora behar duela eta haurrak testuinguru berrira moldatu behar direla. Eguneko lehenengo bi saioak eskainiko genizkioke ikaskuntza-giroetan lan egiteari, izan ere, saio horiek erabiltzen dituzte aurreko ate-irekietan lan egiteko. Hasieran ongi etorriaren errituala egingo genuke, haurrei harrera egiteko, eta hori amaitzean irekiko genituzke gela ateak. Saioa amaitu baino 10 minutu lehenago gela ateak itxiko genituzke eta gela bakoitzean egon diren haurrek erabilitako gela jasoko lukete.

Jasotzeaz bukatzen dutenean, irakaslea eta haurrak korroan bilduko lirateke denbora batez saioan zehar egindakoaz hitz egiteko.

- Irakaslearen rola

Aurretik aipatu dugun moduan irakaskuntza giroetan irakaslea bigarren plano batera pasatzen da, eta bere eginbeharra haurrak jolas librean egon bitartean behatzea izango da. Honek espazioa antolatuko du haurren behar eta interesetara egokituz. Orokorrean, pentsatutako giroa haurrek uneoro nahiko modu autonomoan aritzeko modukoa da, baina adibidez, ordenagailuaren txokoan edota musika tresnen gunean jarduera gidatuagoak suertatu daitezke; hori gertatzekotan, irakaslea ikuskatzen eta gidatzen egon beharko da.

Giroetara adin edo gela ezberdinetako haurrak gerturatzen direnez, kasu batzuetan ikasle gehiegi bildu daitezke azpi-giro berdinean. Honek neurrigabekeria suposa dezake eta lan-giroa kaltetu. Irakasleak hori gertatzea saihestuko du; haurrek libreki aukeratuko dute non aritu nahi diren, baina limiteak ere jarri beharko ditu, giroan haur gehiegi badaude kopurua mugatuz. Hurrengo atalean zehaztuko dugu zein izan daitekeen gune bakoitzeko haur kopurua. Hau komenigarria litzateke haurrei lehenagotik komunikatzea eta azaltzea zergatik erabaki hori. Horrez gain, liskar bortitzen bat suertatzen bada edota haurrek hala eskatuta esku-hartuko du ere.

Egindako behaketa gainontzeko tutoreekin partekatuko du, beste gela batzuetako haurrak gerturatuko direlako. Hortaz, irakasleen arteko koordinazio handia eta sendoa egon beharko du, haurren garapenaren inguruko informazioa galdu ez dadin.

- Baliabide pertsonalak

Haurrentzat erreferentea tutorea da, jakina. Baina kontuan hartu beharra dago Haur Hezkuntzako geletan tutoreak ez ezik espezialistak eta laguntzaileak ere egoten direla. Heldua gelan egongo den saio kopurua ordutegiaren arabera izango da, beraz, zenbait saiotan heldu bakarria egon daiteke, eta beste batzuetan bat baino gehiago.

Giroaren saioen bitartean bertan dauden heldu kopuruak aukerak handitu edo murriztu ditzake. Adibidez, heldu bakar bat egotekotan zailtasun gehiago izango ditugu gune bakoitzean gertatzen dena behatzeko, edota aldi berean jarduera gidatuago bat egiteko. Baina aldiz, heldu bat baino gehiago egoteak aukerak handituko ditu behatzeko edo

esku-hartzeko orduan. Kasu horretan helduek modu sistematikoan jardun beharko dute, parekidetasunez.

- Espazioaren antolaketa: azpi-giroak
- Eszenatokia

Jorge Oteizak, Elorrioko *Eskola Esperimentalerako* haurrek antzerkian lehen urratsak ematea proposatzen zuen. Planteamendu horri jarraiki, giro honetan dramatizazio ezberdinak egiteko eta irudimenari ekiteko gune bat aurkezten dugu.

Gure eszenatokia egurrezko oholtza bat izango da; aurrean esertokiak jarriko ditugu, haurrei errepresentazioak egiteaz gain hauek entzuteko aukera emateko. Ondoan *atrezzo*-a gordetzeko kutxa bat egongo da: jantziak, oihalak, zapiak, txotxongiloak eta estrukturatu gabeko materialekin (sukaldeko tresneria, lanabesak, sokak...), besteak beste. Eszenatokiak oihal-irristailuaz estaltzeko aukera izango du, haurrek, nahi eta behar izatekotan, intimitatea izateko.

Azpi-giro honetan hizkuntza-artistiko ezberdinetako dramatizazioekin esperimintatzeko aukera izango dute haurrek, jolas sinbolikoan aritzeko aukera paregabea. Euren gorputzen kontzientzia hartzeko baliagarria izan daiteke, nor bere ahalmenak eta mugak identifikatu eta identitatea sendotzeko. Ahozko hizkuntzaren aldetik ahozkotasuna garatzeko aukera emango die azpi-giro honek, eta gainontzeko haurrekin antolatu, harremanetan sartu eta lankidetzan aritu ahalko dira. Aurretik aipatu bezala, gune bakoitzak haur kopuru mugatua izango du, beraz, azpi-giro honetan gehienez 6 haur egotea gomendatzen dugu.

- Musika tresnak

Oteizaren giroan musika tresnaz hornitutako toki bat egongo da. Bertan, Objektu Hosdun Ezezagunak (harriak, egurrak, beira, latak, kartoizko kutxak, haziak, plastikozko botilak, hazkagailuak edota soinua ateratzen duen edozein objektu) eta musika-tresna errealak (Orff musika tresnak, panderoa, txalaparta txiki bat, marakak, triangelua, kriskitinak eta kaskabuloak) egongo dira haurren eskura, haurrek musikarekin jolasteko eta inprobisazioak egiten hasteko, Oteizak estetika konparatuen laborategirako proposatzen zuen bezala. Euskal kulturaren defendatzaile amorratua zenez, aproposa deritzogu musika tresna horien artean euskal instrumentuak txertatzea, haurrak euskal

usadioak ezagutzen hasteko. Ez dago zertan aipatutako musika-tresna guztiak aldi berean jarri behar, txandakatu ditzakegu, gehiegikeria saihesteko.

Txoko honetan material birziklatuekin musika tresnak egiteko aukera egongo da ere; jarduera gidatua denez, eta hezitzailearen ikuskapen maila handiagoa eskatzen duenez, lehenik eta behin ziurtatu beharko gara gelan dauden beste azpi-giroetan hurrek modu autonomoan jardun dezaketela, hezitzailearen hainbesteko ikuskapenik gabe.

Soinuduna den edo soinua egiten duen edozer musika-tresna gisara erabil daitekeela ulertuko dute azpi-giro honetan. Musika-tresna ezberdinen soinu-mekanismoa ezagutzeko aukera izango dute, eta hauek egiten duten soinuaren ezaugarriak aztertu ere (luzea/laburra, akutua/apala, altua/baxua). Nork bere gorputzaren kontzientzia hartzeko ere baliagarria izan daiteke, gure gorputzarekin ere musika sortu dezakegula konturatuz. Gune honetan gehienez 3 haur egotea gomendatzen dugu.

- IKT txokoa

Azpi-giro hau Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiaekin esperimentatzeko pentsatua dago. Ordenagailu bat eta Chrombook-ak egongo dira bertan. Horrez gain, grabagailu eta bideokamera bana egongo dira. Bi tresna hauek gelaz arduratzen ari den hezitzailearen ikuskapenarekin erabiliko dituzte hurrek. Hauen bitartez gelan egiten diren errepresentazio zein sorkuntza ezberdinak grabatu ahalko dira: musika tresnen soinuen grabaketak egiteko; eszenatokian gertatzen diren dantza, txiste edo antzerki emanaldiak grabatzeko; gure ahotsa eta hizkuntzarekin jolasteko, etab.

Grabagailuarekin interesgarria izan daiteke hurren ahotsekin olerki edo ipuin bat grabatzea, haurrak protagonista sentitu daitezen eta horrela, ikaskuntza esanguratsua izan dadin. Egindako grabazio horiek jolasteko aukera eman dezakete: olerkia edo ipuina atzetik aurrera kontatu, ahotsaren tonua aldatu edota abiadura bizian jarri. Esperimentazioa azken finean, Oteizak bere obretan egiten zuen bezala.

Ordenagailuari eta Chrombook-ei dagokienez, honako aplikazio hauekin hornituko genituzke:

Canva

Aukera asko dituen aplikazioa da: argazki *collage*-ak, posterrak, gonbidapenak, egutegiak, eta beste hainbat. Aplikazio honen bitartez hurren argazkiei testu laburrak

txertatuz ipuin sinpleak baina esanguratsuak sortu ahalko ditugu, edota eszenatokian ospatuko diren ikuskizunentzat gonbidapenak eta sarrerak prestatu ere.

Bideo editorea

Edozein izan daiteke: *Imovie, Windows Movie Maker, Filmora* edota *Vivavideo*. Aplikazio hauekin haurren ahotsak edo bideoak erabilia ipuinak sortu daitezke, eta baita audio-ipuinak ere. Modu honetan haurrak ikusle hutsak izatetik protagonistak izatera igaroko lirateke.

ChatterKid

Aplikazio honek edozein objektu edo subjekturi argazkia aterata irudi hura animatu egiten du. Interesgarria izan daiteke haurren sormena askatzeko eta animazio ezberdinekin esperimentatzeko.

Gune honetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek bermatzen dituzten aukera ezberdinak miatu eta hauekin gozatzeko aukera izango dute hurrek, eta hauek egoki erabiltzeko ohiturak bereganatzen hasiko dira.

Haiek sortutako ekoizpenetan euren burua eta lagunak identifikatu ahalko dituzte, horrela, ikasketa prozesua esanguratsu bihurtuz eta prozesu horren protagonista sentituz. Ez hori bakarrik, errealitatea eta erreala ez dena, hots, birtuala dena bereizten hasteko aproposa izan daiteke IKT-en azpi-giro hau. Gune hau irakaslea eta gehienez ere 2 ikasleentzat mugatzea komenigarria deritzogu.

- Adierazpen plastikoaren azpi-giroa

Gelaren gune honetan, adierazpen plastikoa garatzeko espazioa izango dute hurrek. Bi txokoz osatzen da azpi-giro hau: batetik margolanak egiteko espazioa eta bestetik, eskuekin artelanak egiteko espazioa.

Margolanen espazioan bi astoren gainean ohol bat jarriko dugu, gainean margotzeko. Lau haur batera margotzen egon ahalko dira. Ondoan mahaitxo bat jarriko genuke, bertan tenperak ipintzeko, non koloreekin esperimentatu eta nahasketak egin ahalko dituzten.

Ondoan, buztinarekin eta plastilinarekin aritzeko mahai bat egongo litzateke. Tailer baten antzera aurkeztuko diegu hurrei: paretan haurrentzako mantalak eskegita

egongo lirateke; ur txorrota bat buztina ongi landu ahal izateko; plastikozko edo egurrezko lanabesak plastilina eta buztina nahieran moldatzeko (eskuekin soilik ere, noski), eta azkenik, plastilina eta buztinezko blokeak. Interesgarria izan daiteke haurrek sortutako eskulturak Oteizak egindakoekin alderatzea, haiek ere eskultorearen lanak ezagutzen hasteko eta behar izatekotan eredutzat hartzeko.

Azpi-giro honek adierazpen-plastikoaren bi aldaera hauekin esperimendatzeko aukera emango die haurrei. Euren sormena askatzeko eta bertan plazerra bilatzeko gunea izango da, inolako influentziarik gabea. Sentimenduak, ideiak eta nahiak adierazteko hizkuntza berri bat topatu ahalko dute bertan, plastikaren hizkuntza. Gainera, aukera paregabea da 4 haurrek batera margotu ahal izatea, beraien artean lagundu ahal izango direlako, eta besteek egindako artelanak modu positiboan baloratu.

Buztina eta plastilinen espazioari dagokionez, masarekin esperimendatzeko aukera izango dute bertan, Oteizak egiten zuen antzera: eskuekin moldatu, zatitu, zatiak erantsi, kendu, berregin, masari hutsuneak egin, bete... Azken finean, eskuak askatasunez erabilia bestelako adierazpen bat aurkitu ahalko dute bertan eta esperimendazioaren bitartez plazerra bilatu. Hemen ere parte hartzaileen (gehenez ere lau) artean laguntza-sareak sortzen saiatuko gara, helduaren influentziarik gabe.

- Argi-mahaia

Argiak eta itzalekin jolasteko eta esperimendatzeko prestatutako baliabidea da. Argia proiektatzen duen mahaia da, eta haren gainean elementu ezberdinak ipini daitezke, argiak horiengan eragiten duen erreakzioa ikusteko. Argi-mahaiaren gune honetan, forma eta material ezberdineko piezak gordetzeko egurrezko ontziak egongo dira apalategi baten gainean. Noski, apalategi hori haurren eskura egon beharko du. Pieza horien artean komenigarria izango da batzuk gardenak eta beste batzuk opakak izatea, haurrek ikus dezaten nola proiektatzen den argia piezan edo pieza nola zeharkatzen duen.


Argi-mahaiarekin jolasteko beste aldaera bat harea jartzea izango da. Harea argi-mahai piztuaren gainean jartzean, haurrek eskuekin harearen gainean marraztu ahalko dute, eta argiak egindako marrazki hura nola zeharkatzen duen ikusteko aukera izango dute. Tresna honekin gehenez bi haurrek jolastuko dute, argi-mahaia ez baita oso handia.

Gune honetan haurrek ikusmena estimulatzen aukera izango dute. Ez hori bakarrik, bertan erabili daitezkeen elementu ezberdinen ezaugarriak erreparatuta sailkapenak edota taldekatzeak egin ahalko dituzte eta baita elementu garden, zeharrargi eta opakuen arteko bereizketa egiten hasi ere.

- Erakusketa

Ikaskuntza-giroen bitarteko metodologian, gelaren inguruko instalazioak espazio hezitzaile izan daitezkeela defendatzen da. Hortaz, gelaren ondoko pasabidea zirkulazio hutserako erabili beharrez, giroan txertatuko dugu. Gelan ematen diren haurren sorkuntzak erakusteko tokia izango da: margolanak, eskulturak edota sortutako musika-tresnak, besteak beste.

Espazio honetan gelan egindako lanak eta sorkuntzak irudikatuak egongo direnez, euren eta euren lagunek egindako lana positiboki baloratu ahalko dute umek. Gainera, ondotik igarotzen den edonork lan horiek ikusi ahal izatea motibagarria izan daiteke haien eta euren autoestimua indartu, trebeak direla sentiaraziz. Giroa ezagutzen ez duenari gela horretan aurki dezakeena aurreikusteko aproposa izan daiteke ere erakusketaren gune hau.



1.Irudia: Gure ikaskuntza giroaren antolaketa

Jarduerak


Espazioaren antolaketaren atalean azpi-giroetan suertatu daitezkeen jarduera batzuen adibideak eman ditugu. Hala ere, ez dugu jarduera gehiegi zehaztu izan nahi, haurren inprobisazio eta esperimentazioari garrantzia handiagoa eman nahi izan diogulako. Baina komenigarria iruditzen zaigu giroa gelan txertatu baino lehen aurkezpen moduan jarduera bat egitea, eta hiru hilabeteak amaituta bukaera jarduera bat. Jarraian, bi jarduera hauen planteamendua aurkezten dugu.

1. JARDUERA: ONGI ETORRI JORGE OTEIZA!

Jarduera hau giroa haur eta familien artean aurkezteko baliagarria izango da, giroa txertatu baino bi aste lehenago egingo duguna. Haurrekin korroan bilduko gara, eta Jorge Oteizaren argazki bat erakutsiko diegu, galdetuz nor ote den irudian ageri den gizona. Haurrak hitz egitera animatuko ditugu, behar izatekotan galdera gehiago planteatuz, baina betiere behartu gabe.

Haien erantzunak entzun eta gero, gizona deskribatzeko eskatuko diegu (zaharra edo gaztea da, nolakoa da bere ilea, zimurrak ote dituen...) eta baita nola uste duten sentitzen den galdetu ere (triste, pozik, beldurtuta, urduri...). Haurren suposizioak eta Jorge Oteizaren inguruko irudikapenak ezagutuko ditugu horrela. Jasotako erantzunak arbelan erregistratzea interesgarria izan daiteke, umeez ikus dezaten esaten ari dutena kontuan hartzen dugula.

Suposizio horiek guztiak entzunda, esango diegu gure ardura Oteiza benetan nor den ezagutzea izango dela, berehala berak egiten zuen bezala hasiko garelako lanean. Beraz, etxean gurasoekin, detektibeak bagina bezala, Oteiza deskubritu beharko dugula, eta hurrengo egunetan etxean egindako aurkikuntzak gelakideekin partekatuko ditugula. Horretarako, gurasoei ohar bat bidaliko zaie, plangintza berriaren eta haurren eginbeharraren jakinaren gainean egoteko. Horrez gain, giroaren nondik norakoak azalduko dizkiegu, eta giroan ipintzeko material aproposa izatekotan, hura ekartzeko eskatu ere.



FAMILIENTZAKO OHARRA
NOTA PARA LAS FAMILIAS

Kaixo familiak! **¡Hola familias!**

Dakizuenez, denboraldi bat daramagu atekien bidez lan egiten. Hurrengo hiruhilekoari begira berrikuntzekin gatozi! Como ya sabréis, llevamos un tiempo trabajando mediante las puertas abiertas. De cara al trimestre que viene, ¡traemos novedades! Vamos a insertar un nuevo ambiente sobre la aportación a la educación del artista vasco Jorge Oteiza.

Haurrekin artistarenganako lehenengo hurbilpena egin dugu, eta orain, zuen txanda da! Etxean, seme-alabekin batera, **Jorge Oteizaren inguruko informazioa bilatzea eskatzen dizuegu**, aste honetan berriro elkartzeko eta etxean bildutako informazioaren inguruan mintzatuko garelako, bere biografia txiki bat osatzeko.

Bestalde, **giroan erabiltzeko ekartzen duzuen edozein material ongi etorria izango da**. Adibidez, erabiltzen ez duzuen arropa, oihalak, plastikozko botilak eta lata hustuak, soinua egiten duten objektuak, edota bururatzen zaizuenak! Marxoaren hasieran hasiko gara giroarekin, beraz, hilabetea hasi baino lehen bilduko ditugu ekarritakoak.

Eskerrik asko aldeaz aurretik eta ongi segiti!
3 urteko irakasleak

En clase hemos hecho un pequeño acercamiento al artista, y ahora, ¡es vuestro turno! Os pedimos que en casa, con vuestros hijos e hijas, **busquéis información sobre él**, ya que esta semana nos volveremos a juntar y hablaremos sobre la información recopilada, para montar una pequeña biografía sobre Oteiza.

Por otro lado, **será bienvenido cualquier material que traigáis para usarlo en el ambiente**. Por ejemplo, ropa que no uséis, telas, botellas y latas de plástico vacías, objetos que realicen sonidos, o lo que se os ocurra. En marzo es cuando empezaremos con el ambiente, así que, recopilaremos lo que traigáis hasta esa fecha.

¡Muchas gracias de antemano y esperamos que sigáis bien!
Profesoras de 3 años

2.irudia. Jorge Oteiza ikaskuntza giroaz informatzeko familientzako oharra.

Aste horretan zehar, berriz ere korroan bilduko gara, haurrek familiekin batera egindako aurkikuntzen berri eman ahal izateko. Horrela, umeen bilaketeki esker Jorge Oteizaren biografia osatu ahalko dugu, haien garapen mailara egokitua, eta gertutik ezagutzeko aukera izango dute. Oraingoan ere erantzunak arbelean idatziko ditugu, eta amaitzean gela itxuraz aldatuko dugula esango diegu, berak lan egiten zuen bezala guk ere lanean hasteko. Familiekin materiala ekartzekotan, gutxinaka material horiek haurrei aurkeztea gomendatzen dugu, behin giroa gelan txertatuta ezagunak izateko.

2. JARDUERA: GU ERE OTEIZA GARA!

Hiruhilekoa amaituta, unitate hau ixteko familiak girora gonbidatuko ditugu. Saio batez egongo dira bertan, eta haurrek familiekin erakutsi ahalko die zertan egon diren hiruhileko batez lanean. Giroa ezagutu ondoren, erakusketaren gunera abiatuko ginateke. Bertan denboraldi horretan zehar haurrek egindako sorkuntzak aurkeztuak egongo dira, beraz, museo batean bezala, ikasleek euren kreaioak erakusteko aukera

Jorge Oteizaren esperientzia estetikoak Haur Hezkuntzan

izango dute. Bukatzeko, berriro gelara itzuliko gara, eta bertan giroak iraun bitartean bildutako bideo edo argazki-muntaia bat ikusiko dugu denek elkarrekin, orain arte egindakoa gogoratzeko eta familiek ikusteko. Ondoren muntaia horren kopia bana banatu daiteke familien artean.

Erakusketaren azpi-giroan azaldu dugun bezala, haurrak trebeak direla sinestea eta euren buruak modu positiboan baloratzea ahalbidetu dezake azken ekintza honek.

Hau egiteko egun batzuk lehenago korroan bilduko ginateke, eta hurrekin gurasoak bertaratzeko gonbidapenak pentsatuko genituzke: lehenengo, guztion artean gonbidapen horretan zer jarri adostuko dugu (irakasleak gidatu beharko du zer komendi den jartzea eta zer ez); ondoren, irakasleak ordenagailuaren bitartez adostutakoarekin gonbidapenak egin eta inprimatuko ditu, eta bukatzeko, hurrek gonbidapen horiek apainduko dituzte (margotuz, pegatinak jarritz, purpurina botaz...). Gonbidapen horiek informazio oso mugatua izango dutenez, gurasoei ohar bat bidaliko diegu gure plana zein den azalduz.



FAMILIENTZAKO OHARRA
NOTA PARA LAS FAMILIAS

Kaixo familiak!

Ikasturtearekin batera, Oteizaren giroa bere amaierara iristen ari da. Bertan oso gauza politak gertatu dira, eta gainera, haurrek sorkuntza zoragarri ezberdinak egin dituzte: antzerkiak, eskulturak, kontzertuak, margolanak, eta abar.

Etapa honi amaiera emateko, **gelara gonbidatu nahi zaituztegu**, zuek ere lehenengo pertsonan giro honetan haurrek sortutakoak ezagutzeko eta denok elkarrekin une eder bat pasatzeko. Ohar honekin batera egun horretarako haurrek maitasun osoz pentsatu eta egindako gonbidapen batzuk helarazten dizkizuegu. Gonbidapenetan zehaztu dugun bezala, **ekainaren 1ean** gonbidatutak zaudete gelara etortzeko. Baina mesedez arren, **haur bakoitzeko heldu bakarra** etortzea eskatu behar dizuegu, jende pilaketa saihesteko.

Bestenik gabe, zuen esperoan gaudel!
Eskerrik asko eta ongi izan,
[3 urteko irakasleak](#)

¡Hola familias!

A la vez que el curso escolar, el ambiente de Oteiza llega también a su fin. En él han sucedido cosas muy bonitas, y además, los y las niñas han hecho unas creaciones increíbles: teatros, esculturas, conciertos, cuadros, etc.

Para dar fin a esta etapa, **os queremos invitar a nuestro aula**, para que podáis conocer en primera persona las creaciones de vuestros/as hijos e hijas, y pasar un buen rato todos/as juntos/as. Junto con esta nota, os hacemos llegar las invitaciones hechas con mucho mimo de los y las alumnas.

Como especificamos en la invitación, **el día 1 de junio** estáis invitados/as a visitar nuestra clase. Pero os pedimos por favor que **por cada alumno/a acuda un solo adulto**, para evitar una gran concentración de gente.

Sin más, ¡os esperamos!
Muchas gracias,
[Profesoras de 3 años](#)

3.irudia. Familiak girora gonbidatzeko idatzia.

Aniztasunari arreta

Giro hau aurrera eraman ahal izateko kontuan hartu beharko dugu Haur Hezkuntzako geletan edozein motatako aniztasuna egon daitekeela: Hezkuntza Premia Bereziak, beste herrialde batzuetatik eratorriak edota heldutasun maila, besteak beste.

Diseinatutako ikaskuntza giro honetan haurren egoera edozein dela ere, egoera hori kontuan hartu eta erantzun bat ematen saiatuko gara. Hortaz, giroa aniztasunari begira kudeatzen edo egokitzen ahalegindu beharko gara.

Planteamendu honetan piktogramen bidez lana egitea proposatzen dugu. Gomendagarria deritzogu azpi-giro bakoitzean piktogramak egotea, hurrek bertan burutu ditzaketen jarduerak modu bisual batez ulertu dezaten. Piktogramak lagungarriak izan daitezke hala Hezkuntza Premia Bereziko haurrentzat nola behar berezirik ez duten horientzat ere.

Piktogramen ildoari jarraituz, gelako txokoren batean lasaitzeko gune bat eraikitzea proposatzen dugu. Txoko honetara oso urduri edo aztoratuak dauden hurrekin joko dugu, banaka, lasaitzeko eta bere gorputza eta buruarekin berriro konektatzeko. Interesgarria litzateke hemen ere emozioen piktogramekin lan egitea, haurrentzat errazagoa izan dadin emozioa edo egoera identifikatzea.

Bestalde, gelan kanpotik eratorritako hurrak edo familiak baditugu, herrialde horietako musika-tresnak edo jantziak txertatu ditzakegu, eta ume hauen laguntzaz material berri horiek gainontzekoei aurkeztu, haur horien testuingurua kontuan hartzeko eta identifikatuak sentitzeko.

Ebaluazioa

Proposatzen dugun ebaluazioa banakakoa eta jarraia da, behaketa sistematikoaren bitartez eginikoa. Behaketaren erregistroa egiteko, jarraian baliabide batzuk planteatzen ditugu.

Giroa osatzen duten azpi-giro bakoitzean, erregistro-orri bat egongo da paretan zintzilik. Erregistro-orri honen funtsa zein haur eta zenbatetan jarduten duten giro horretan adieraztea izango da. Orri honen bitartez jakin ahal izango dugu azpi-giro bakoitzak haurren artean duen arrakasta. Gainera, argi ikusiko dugu hurrek zein gune saihesten dituzten edota zein gune nahiago duten. Azpi-giroren bat baztertzen badute edo haur Jorge Oteizaren esperientzia estetikoak Haur Hezkuntzan

batek azpi-giro batean egoteko arazoak baldin baditu, ikaskuntza-giroen denbora amaitzean egingo dugun asanbladan konpontzen saiatuko gara, betiere haurrak behartu gabe, eta beharrezkoak ikusten ditugun moldaketak edo hobekuntzak egingo ditugu. **(II.Eranskina:** Gelako azpi-giroen erregistro-orria).

Erregistro-orri horrez gain, egunero giroaz arduratu den irakasleak ebaluazio-orri bat bete beharko du. Orri honen helburua ez da ikasleen garapena ebaluatzea izango, baizik eta irakasleak bere burua, haurren jardunaldia eta ikaskuntza-giroaren antolaketa ebaluatzea izango da. **(III.Eranskina:** Oteiza ikaskuntza giroaren eguneroko ebaluazio-orria).

Amaitzeko, aurretik aipatu dugun moduan, ikaskuntza-giroen saioa amaitzen denean gelan aritu diren haurrak eta irakaslea korroan bilduko dira. Momentu hau hurrei hitz egiteko aukera emateko izango da: zertan, norekin eta non jolastu diren; nola sentitu diren; arazoren bat izan duten; edota iradokizunen bat egin ahalko dute une honetan. Honek haurren iritzia jakiteko balioko digu, eta haien interesak eta nahiak kontuan hartuta giroan hobekuntzak egiteko aukera emango digu.

5.3.2. Irakasleen datu bilketa AMIA diagnosi-teknika erabiliz

Proposamenaren diseinu teorikoa eskuartean izanda, Mendialdea II-ko Haur Hezkuntzako 3 urteko irakasleei helaraztea izan da gure hurrengo pausua. Diseinatutako giroaren feedback-a jasotzeko asmoarekin bidali zitzaizen. Proposamenak dituen aukerak jakiteko eta haien iritzia jasotzeko, AMIA diagnosi-teknikaz baliatu gara.

AMIA aukera, mehatxu, indargune eta ahulezia hitzez osatutako akronimoa da. Hasiera batean enpresek estrategiak adosteko erabilitako teknika izan da, baina gaur egun hezkuntzan erabiltzen ari den metodoa ere bada.

Dakigunez, ikastetxe bati inguruneak eragiten dio, kanpoko zein barnekoa. Teknika honen bitartez estrategia berri bat txertatzeko barne eta kanpoko inguruneak ikastetxeari eskaintzen dizkion indarguneak eta aukerak edota ikastetxea mugatzen duten ahuleziak eta mehatxuak zehazteko baliagarria da.

Hauek zehaztu ondoren, komenigarria litzateke aurrera eramán nahi den proposamen berrirako estrategia bat zehaztea, adostutako indargune, aukera, mehatxu eta ahuleziak kontuan hartuta.

Hurrengo puntuan, proposamena burutzeko mesede egin edo galarazi ditzaketen aurreikusitako faktoreak aditzera emango ditugu.

5.3.3. *Lortutako informazioaren antolaketa AMIA diagnosi-teknikaren bidez*

Behin proposamena diseinatuta genuela, hura baloratzeko indargune, ahulezia, aukera eta mehatxu batzuk aurreikusi genituen hasiera batean. Lehenengo aurreikuspen hori, proposamenaren diseinuarekin batera 3 urteko 5 irakasleri bidali zitzaien. Aurreikusitakoak haien iritziarekin uztartzeko asmoarekin bidali genien, izan ere, haiek dira eskola batean hainbeste urtez lanean egon direnak, beraz, inor baino hobeto dakite proposamena lagundu edo galarazi dezaketen faktoreak. Erantzun guztiak AMIA matrizearen bitartez jaso dira, baina atal hau faktore horiek zehaztasun gehiagorekin azaltzera eskainiko diogu. (**IV.Eranskina:** AMIA diagnosi-teknikaren bitarteko analisia).

Lehenik eta behin barne jatorriko analisiari dagokionez, proposamena aurrera eramateko aurreikusten ditugun *ahuleziak* eta *indarguneak* azalduko ditugu.

Aurkitutako ahuleziak bi multzotan banatu ditzakegu: irakasle taldearen ahuleziak batetik, eta eraikinarenak, bestetik. Irakasleei dagokienez, aurreikusitako ahuleziarik agerikoena irakasle gutxi dutela Oteizaren ekarpen estetikoaren berri izan da, ezinbestekoa deritzoguna giroa planteatu ahal izateko. Horrez gain esan beharra dago irakasle lanbidea lan zama handia suposatzen duen ogibidea dela, eta gelan proposamen berri bat txertatzeak lan-karga gehiago suposatu dezake. Gainera, horrelako ekintza bat burutzeko denbora behar da, askotan irakasle batek faltan duena.

Eraikinaren antolamenduari dagokionez ere ahuleziak aurkitu izan ditugu. 3 urteko gelak 4 eta 5 urteko geletatik aldenduta daudela azpimarratzekoa da. Horrek, adin artekoen harremana zailtzen du; denak elkarrekin egongo balira, giro hau 3 urtekoek soilik erabili ez ezik gainontzekoek ere erabil zezaketen, baina eraikinaren barne antolaketak hori galarazten du. Ez hori bakarrik, eraikina inguru pribilegiatu batean kokatua dago, mendian. Horrek proposamen hau egiteko aukerak handitu ditzake, baina, zoritxarrez, ez dago mendira zuzenean eta modu seguruan ateratzeko aukerarik.

Bestalde, indarguneak ditugu. Gela antolaketak diseinatutako giro hau aurrera eramateko mesede egiten dute. Izan ere, gelak oso zabalak dira, eta haur taldeen ratioak oso egokiak dira, 17-20 haur ingurukoak. Ez hori bakarrik, irakasle taldeak ere gure

diseinuari laguntzen dio. Koordinazioaren orduan ez legoke arazorik, irakasleen arteko giroa ezin hobea baita; talde lana egiten dute uneoro, eta gainera, ziklo osoak ildo berdina jarraitzen du. Berrikuntzak egiteko garaian konpromezu eta ilusio handiko taldea da, alderdi afektiboari eta irakaslearen begirada enpatikoari garrantzia ematen diona.

Bukatzeko, kanpo jatorriko analisiari dagokionez aurki ditzakegun mehatxuak eta aukerak azalduko ditugu. Esan beharra dago hauek nekez aurkitu ditugula.

Mehatxuen artean bi baino ez ditugu aurreikusi. Alde batetik horrelako ekintzak autonomiaz burutu ahal izateko irakasle nahikoa behar dela; hau ez dago eskolaren esku, Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren esku baizik. Eta bestetik, gobernuak araututako espazioek ezartzen dituzten mugak ditugu. Izan ere, irakasle hauek adierazi dutenez, askotan nahiko lukete moldaketa baten bat egin espazioa hobe erabiltzeko (pareta bat bota, adibidez). Baina agindutako araudiari jarraiki egin beharra dute lan, ez dago haien esku.

Azkenik, kanpo faktore onuragarriak ditugu. Ahulezien artean irakasleek Jorge Oteizaren hezkuntza estetikoaren inguruan formazio gutxi dutela adierazi dugu. Bada, Jorge Oteiza Fundazio Museoak irakasleentzako eskaintzen dituen formazioak aukera paregabea dira ekarpen horretan sakontzeko. Gainera, hurrekin museo horretara joateko ateraldiak antolatu daitezke, Berriozartik gertu dagoena, eta eskolak eskaintzen duen garraio zerbitzuari esker posiblea litzatekeena.

ONDORIOAK ETA EZTABAIDAGAI IREKIAK

Castellano

Para finalizar este Trabajo de Fin de Grado, nos disponemos a explicar las conclusiones a las que hemos llegado gracias al trabajo realizado y las conclusiones abiertas que este deja. Al igual que en el apartado *Origen del trabajo*, este también lo presentamos en euskera y castellano, siguiendo las orientaciones del Trabajo de Fin de Grado.

El diseño de una propuesta y la investigación realizada nos han dado vía a llegar a diversas conclusiones. Después de leer sobre el tema en cuestión, hemos podido comprobar lo que suponíamos: mayormente, en la educación, tenemos una perspectiva equivocada de la función del arte. Gracias a informarnos sobre las aportaciones de artistas como Jorge Oteiza, Arno Stern o José Antonio Sistiaga, corroboramos que el arte va mucho más allá de pedir pintar algo bonito a un/una niño/a. Y gracias a estos artistas y al laboratorio IKERTZE, hemos podido conocer las diversas opciones que el lenguaje artístico ofrece al niño/a. Puede ser un juguete didáctico, el cual puede producirle placer mediante el juego y la experimentación, y de paso, permitirle desarrollar todos sus lenguajes de una manera integral.

Cabe mencionar también que ha sido la primera vez que hemos sabido de Jorge Oteiza, solamente conocíamos su faceta de escultor. Pero este trabajo final nos ha dado la opción de percatarnos que su aportación va mucho más allá del arte. Oteiza ha hecho una gran contribución a la educación, y por desgracia, sigue siendo desconocida para algunos/as. Así lo hemos podido comprobar mediante el sondeo realizado a las profesoras del 2. ciclo de Educación Infantil de Mendialdea II, ya que solo unas pocas conocían su aportación. Es una pena que hoy en día sean tan conocidos pedagogos/as de países tan diversos del mundo, y que la aportación de un artista vasco tan cercano siga en la sombra para muchos/as. Gracias a que la Fundación Museo Jorge Oteiza hace un increíble esfuerzo por cambiar esto.

Entre todas estas conclusiones, no podemos olvidarnos de las dificultades a causa del Covid-19. Como ya hemos dicho, tuvimos que cambiar la orientación del trabajo, y finalmente la propuesta no se ha podido llevar a cabo, se ha quedado en un simple diseño. El proceso ha sido bastante difícil: han sido pocas las veces que hemos realizado

una programación didáctica, y en el camino nos han surgido muchas dudas. En especial, no sabíamos si la propuesta iba a ser adecuada o no, ya que como hemos dicho, notamos cierta falta de práctica a la hora de diseñar una programación. Además, en ella hay que tener en cuenta muchos aspectos: la diversidad, los recursos, el tiempo, el espacio, y etcétera, aspectos que con tan poca práctica resultan difíciles. Sin embargo, el feedback recibido de las profesoras de 3 años nos ha sido muy útil para que nuestro planteamiento fuese lo más real posible. En un principio esa propuesta tenía muchas carencias, y no se acercaba mucho a la realidad de un aula de 3 años. Pero gracias a las críticas recibidas creemos que hemos diseñado una propuesta muy bonita.

De todas formas, el ambiente diseñado es hipotético: no lo hemos podido comprobar, por lo tanto, sabremos si es adecuado en el momento que se lleve a cabo. Hay que decir que en el momento que se lleve a la práctica se podrán hacer cambios y adaptaciones; no es más que una propuesta, así que tendremos que ser flexibles en el momento que se incorpore a la realidad, realizando las adecuaciones que creamos convenientes.

Además, como hemos podido comprobar mediante la técnica DAFO, muchas veces no está en mano de los/las profesores/as llevar a cabo una propuesta. Entran en juego muchos factores: los límites del edificio, la normativa del gobierno, el trabajo docente, etc. Afortunadamente, creemos que nuestra propuesta está bastante equilibrada en cuanto a debilidades-fortalezas y amenazas-oportunidades, por lo tanto, nos parece adecuada para llevarla a cabo alguna vez.

Por lo general, este Trabajo de Fin de Grado nos ha servido para profundizar en nuestros estudios. Muchos aspectos de este trabajo nos eran desconocidos, como, por ejemplo, el estudio de casos, como realizar una programación didáctica adecuada o la técnica DAFO. Además de eso, nos ha dado la oportunidad de profundizar nuestros conocimientos sobre la metodología por ambientes, lo cual ha sido muy enriquecedor.

Además, gracias a la entrevista realizada a la directora de Mendialdea II y a la relación con las profesoras, hemos podido comprobar que un/una profesor/a siempre está en continua formación, siempre dispuesto/a renovarse y a aprender o desaprender. La educación nunca descansa, siempre hay algo que mejorar o cambiar.

Por último, cabe recordar que nuestra propuesta ha quedado en el aire. No nos gustaría que se quedara en un simple diseño, por lo tanto, esperamos en un futuro poder ponerla a prueba, para saber si lo previsto es adecuado o no. Por otro lado, quisiéramos invitaros y animaros a indagar en la aportación de Jorge Oteiza; sería una pena dejar a un lado el legado que le dejó a la educación. Descubrámoslo.

Euskara

Gradu Bukaerako Lan honi amaiera emateko, lanari esker ateratako ondorioak eta honek agerian uzten dituen bide irekiak azaltzera ekingo diogu azkenengo atal honetan. *Lanaren jatorria* atalean bezala, hau ere euskaraz ez ezik gaztelaniaz idatziko dugu, Gradu Bukaerako Lanaren orientabideei men eginez.

Egindako ikerketak eta proposamen baten diseinuak askotariko ondorioetara iristeko bidea izan dira. Jorratu beharreko gaiaren inguruan irakurri ondoren, bagenekiena egiaztatu ahal izan dugu: Hezkuntzan, gehienetan, arteak jokatzeko duen funtzioaren ikuspegi okerra dugula. Jorge Oteiza, Arno Stern edo Jose Antonio Sistiaga bezalako artisten ekarpena ezagututa, artea haurrei zerbait polita margotzeko eskatzea baino askoz haratago doala berretsi dugu. Eta aipatutako artista hauei esker, edota IKERTZE laborategiari esker, hizkuntza-artistikoak haurrari bermatzen dizkion askotariko aukerak ezagutzeko aukera izan dugu. Haurrarentzat jostailu didaktikoa izan daitekeela ikusi dugu, jolasaren eta esperimentazioaren bidez plazerra sorraraziko diona, eta bide batez bere hizkuntza guztiak modu oso baten bidez garatzea ahalbidetuko duena.

Ildo beretik, esan beharra dago lehen aldia izan dela Jorge Oteizaren inguruan jakin dugula, alderdi eskultorikoa ezagutzen genuen soilik. Baina amaierako lan honek aukera eman digu bere ekarpena arteaz haratago doala konturatzeko. Izan ere, sekulako ekarpena egin dio hezkuntzari Oteizak, eta zoritxarrez, askorentzat ezezaguna jarraitzen du izaten. Hala ikusi izan dugu Mendialdea II-ko Haur Hezkuntza 2.zikloko irakasleen artean egindako zundaketan, gutxi batzuek ezagutzen baitzuten bere emaria. Tamalgarria da munduko herrialde askotako pedagogoak gaur egun hain ezagunak izatea, eta gertukoa den euskal artista baten ekarpena askorentzat ezkutuan jarraitzea. Eskerrak Jorge Oteiza Fundazio Museoak izugarritzko ahaleginak egiten ari dituela hau aldatzeko.

Ondorioen artean ezin aipatu gabe utzi Covid-19aren eraginez suertatu zaizkigun zailtasunak. Esan bezala, lanaren orientabidea aldatu behar izan genuen, eta diseinatutako proposamena ezin izan da aurrera eraman, diseinu hutsean geratu da. Prozesu hori nahiko zaila izan da; oso gutxitan egin dugu programazio didaktiko bat eta bidean zalantza asko agertu zaizkigu. Batez ere, ez genekien proposamena aproposa izan zitekeen edo ez, esan bezala, praktika falta somatu baitugu programazio baten diseinuaren orduan. Gainera, hainbat gauza hartu behar dira kontuan: aniztasuna, baliabideak, denbora, espazioa, eta abar, praktika askorik gabe zailak suertatzen direnak. Hala ere, 3 urteko irakasleengandik jasotako *feedback* edo iradokizunak gure planteamendua ahalik eta errealean bihurtzeko baliagarriak izan zaizkigu. Hasiera batean planteatutako diseinuak gabezia asko zituen, eta ez zen 3 urteko gela baten errealitateara asko hurbiltzen. Baina jasotako kritikei esker proposamen polita sortu dugula uste dugu. Hala ere, diseinatutako giroa hipotetikoa da; ezin izan dugu frogatu, beraz, aurrera eramaten den momentuan jakingo dugu guztiz egokia den ala ez. Esan beharra dago praktikan jartzen den unean bertan aldaketak eta egokitzapenak egin ahalko direla, izan ere, proposamen bat besterik ez da, eta malguak izan ahalko gara errealitatean txertatzen bada, beharrezkoak iruditzen zaizkigun moldaketak eta aldaketak eginez.

Gainera, AMIA diagnosi-teknikaren bitartez frogatu izan dugun bezala, askotan proposamen bat aurrera eramatea ez dago irakasleen esku. Hainbat faktoreek eragiten dute: eraikinaren barneko mugek, gobernuko araudiek, irakasle lanbideak, etab. Zorionez, gure proposamenak ahulezia-indargune eta mehatxu-aukerak nahiko orekatuak dituela uste dugu, beraz, aproposa deritzogu noizbait aurrera eramateko, kasuak-kasu.

Orokorrean, gure ikasketetan sakontzeko aukera eman digu Gradu Bukaerako Lan honek. Lanaren zenbait alderdi ezezagunak genituen, hala nola, kasu-azterketa, programazio didaktiko egoki bat nola egin, edota AMIA diagnosi-teknika. Horrez gain, ikaskuntza-giroen bitarteko metodologiaren ezagutzak sakontzeko aukera izan dugu, oso aberasgarria izan dena.

Gainera, Mendialdea II-ko zuzendariari eginiko elkarrizketari eta irakasleekin izandako harremanari esker, frogatu ahal izan dugu irakasle bat beti dagoela etengabeko

formakuntzan, beti berritzeko prest eta ikas edo des-ikasteko prest. Hezkuntzak ez du inoiz atsedetik hartzen, beti dago hobetu edo aldatu daitekeen zerbait.

Azkenik, aipatzekoa da gure proposamena aurrera eraman gabe geratzen dela. Ez genuke nahi gure diseinua ahalegin hutsean geratzea, hortaz, espero dugu etorkizunean frogatu ahal izatea, aurreikusitakoa egokia ote den jakiteko. Bestalde, Jorge Oteizaren ekarpenaren inguruan arakatzeko gonbitea egin nahiko genuke; pena izugarria izango litzateke alde batera uztea artistak hezkuntzari utzitako ondarea. Argitara eman dezagun.

ERREFERENTZIAK

- Acevedo-Díaz, J.A, García-Carmona, A., Aragón-Méndez, M, M., y Oliva-Martínez, J.M. (2017). Modelos científicos: significado y papel en la práctica científica. *Revista Científica*, 30 (3), 155-166. Hemendik eskuratua: https://www.researchgate.net/publication/319457577_Modelos_cientificos_si_gnificado_y_papel_en_la_practica_cientifica
- Adrada, Z. (1993a). Artearen Hezkuntza. Eta zentzumenei buruz hitz egiten badugu? *Jakingarriak* (26), 26-28.
- Adrada, Z. (1993b). Artearen Hezkuntza. Metodologia pixka bat. *Jakingarriak* (26), 29-30.
- Álvarez, C. (2012). La elección del estudio de caso en investigación educativa. *Gazeta de Antropología*, 28 (1). Hemendik eskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4282768>
- Arno Stern Official Web Site*. (2000). Hemendik eskuratua: <https://arnostern.com/en/>
- Apalategi, J. (2000). La experiencia de Jorge Oteiza en la educación. A. Rosales. (Ed.), *Jorge Oteiza creador integral* (59-78. or.). Iruña: Jorge Oteiza Fundazio Museoa / Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Apalategi, J. (2000). Hezkuntza-Erakuntza I: Oinarri Teorikoak. Iruña: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Apalategi, J. (2003). Oteiza: irakaslearen konpromisoa heziketa estetikoan. *Hik Hasi euskal heziketarako aldizkaria*, Jorge Oteitza 14. monografikoa, 8-19.
- Apalategi, J. (2004). Jorge Oteiza maisuaren estetikaz. *Nabarra Euskal Herriko kultur hilabetekaria*, (43), 8-13.
- Apalategi, J. (2015). Sistiaga eta adierazpen askearen heziketa. Jorge Oteiza Fundazio Museoa, *Sistiaga* (159-236 or.). Altzuza (Nafarroa): Fundación Museo Jorge Oteiza Fundazio Museoa.
- Del Valle de Lersundi, P. (2003). Oteiza: espazio eraldatzailea. *Hik Hasi euskal heziketarako aldizkaria*, Jorge Oteitza 14. monografikoa, 20-25.

- Demografiari buruzko informazioa. (2020). In *Berriozarko Udala*. Hemendik eskuratua: <http://www.berriozar.es/eu/lugar-y-gentes/informacion-demografica/>
- Cifre-Mas, J., Adrover, J.M. (2012). Aprender a través de los ambientes. *Aula de Innovación Educativa*. Nº 217, 16-19.
- Congresindians. (2014). Bartzelona. Hemendik eskuratua: <https://escolacongresindians.com/>
- Euskaltzaindia. (2020). *Literatura Terminoen Hiztegia*. Hemendik eskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=metafora
- Euskaltzaindia. (2020). *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Hemendik eskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu
- Eyot, Y. (1980). Génesis de los fenómenos estéticos. París: Blume.
- Formulazioa ez da posible den zerbait, beharrezkoa den zerbait baizik. (2009). *Hik Hasi euskal heziketarako aldizkaria*, (135). Hemendik eskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20090201/arno-stern-formulazioa-ez-da-posible-den-zerbait-beharrezkoa-den-zerbait-baizik>
- Genua, E. (1993). Artearen Hezkuntza. Artearen Hezkuntza jorratzeko beste ikusmolde bat. *Jakingarriak* (26), 22-25.
- Hoyuelos, A. (2018). Euskal Herrian Erreferente diren Pedagogok. *Loris Malaguzzi* (111-117 or.). Gipuzkoa: Xangorin.
- López-Goñi, I. (2018). Euskal Herrian Erreferente diren Pedagogok. *María Montessori* (33-38 or.). Gipuzkoa: Xangorin.
- Lujanbio, N. (2008). Jorge Oteiza: Jenio hutsa. Donostia: Elkar.
- Morales-Hernández, L.A. (2017). La metáfora en la ciencia. *Revista de Divulgación Científica y Tecnológica de la Universidad Veracruzana*. (Volumen XXX, nº 1). Hemendik eskuratua: <https://www.uv.mx/cienciahombre/revistae/vol30num1/articulos/la-metafora-en-la-ciencia.html>

- Nafarroako Aldizkari Ofiziala. (2007). Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko Curriculumua. (23/2007 FORU DEKRETUA). Nafarroa. Hemendik eskuratua: <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/curriculos-y-normativa>
- Palma, H.A. (2005). El desarrollo de las ciencias a través de las metáforas: Un programa de investigación en estudios sobre la ciencia. *Revista CTS*, (7), 45-65. Hemendik eskuratua: <http://www.revistacts.net/volumen-2-numero-6/49-articulos/112-el-desarrollo-de-las-ciencias-a-traves-de-las-metaforas-un-programa-de-investigacion-en-estudios-sobre-la-ciencia>
- Quintela, J. (2018). Euskal Herrian Erreferente diren Pedagogok. *Emmi Pikler* (95-102 or.). Gipuzkoa: Xangorin.
- Real Academia Española. (2020). Hemendik eskuratua: <https://www.rae.es/>
- Riera Jaume, M.A., Ferrer Ribos, M. eta Ribas Mas, C. (2014). La organización del espacio por ambientes de aprendizaje en la Educación Infantil: significados, antecedentes y reflexiones. *Revista Latinoamericana de Educación Infantil*, 3(2), 19-39.
- Txapartegi, J., Apalategi, J. del Valle de Lersundi, P., IKERTZE elkarte eta Serras, P. (2004). Jorge Oteitza: 14.monografikoa. *Hik Hasi euskal heziketarako aldizkaria*.
- Vadillo, M., Makazaga, L. (2007). Los proyectos educativos de Jorge Oteiza: El instituto de Investigaciones Estéticas. Nafarroa: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

ERANSKINAK

- I. **Eranskina:** Giro metodologiaren inguruan HHko irakasle eta eskolako zuzendariari elkarrizketa

ZERGATIK GIROAK?

Bernard Aucuturierrek sortutako psikomotrizitate praktika hezitzaile eta prebentiboa izan zen gure praktika aldarazi zuena, psikomotrizitatean izan genuen formazioa. Duela 12-13 urte inguru izan zen; gutxinaka, eskolan geunden Haur Hezkuntzako irakasleak horretan formatzen joan ginen eta gaur egun ia Haur Hezkuntzako guztiok daukagu formazio hori. Formazio hau oso konpletoa da, eta ikusi genuen badagoela marko bat oso definitua, denbora eta espazio aldetik. Psikomotrizitatearen praktikan bi momentu oso garrantzitsuak daude: *hasierako errituala* eta *bukaerako errituala*. *Hasierako erritual* hori oso inportantea da, bertan denak elkartzen garelako, haurrek sentitzen dutelako daudela gure begiradan. Gehien bat taldeko partaideak dela sentiarazteko balio dio haurrari. Bukaeran ere aukera daukate azaltzeko nola sentitu diren, edo gu izan gaitezke ispilua haiek ezin badiote beren bizipenari hitzik jarri. Bi momentu hauen tartean modu autonomoan aukeratzen dute nora joan jolastera, eta nolabait jolas librea aritzen dira. Nahiz eta kanpotik jolas librea ikusi, horren atzetik hezitzaileen partetik izugarritzko ardura dago antolaketari dagokionez, izateko argi zer lotura daukan espazio bakoitzak Haur Hezkuntzako curriculumarekin; lana handia dago atzean.

Hori dena interesgarria zela ikusita, zentzua zuela ikusi genuen eta horretan sinistu genuen. Irakasleak izan behar dituen jarrerak eta egoteko modua oso ongi definituta zeuden praktika horretan, beraz, eskema hori bera gelara eramatea erabaki genuen. Orduan, nolabait esateko, lan egiteko moduaren aldaketaren errua psikomotrizitatearena izan zen. Formazioa Bergaran egin genuen bi urtez, eta bertan beste eskoletako ereduak ezagutu genituen, horien artean Gipuzkoako Altzuola eskola. Eskola hau guretzat erreferente garrantzitsua izan zen. Hor ere gela irekiak zituzten, gauza da eskola txikiagoa dela eta han sarrera malgua egiten zutela. Haurrak iristean jolas librea aritzen ziren eta denak zeudenean hasierako errituala egiten zuten. Ondoren, espazio ezberdinetara abiatzen ziren. Momentu horretan Altzuola izan zen erreferentzia bat guretzako.

Lan egiteko modu honetan, bai psikomotrizitatean eta baita ate irekietan ere, behaketarako toki pribilegiatu bat da eta hori zen geletara eraman nahi genuena. Gelan behatzea ez da hain erraza, askoz errazagoa da psikogelan. Haurrek aukeratzen duten espazioan daudenean behaketaren bitartez hainbat gauza ikus daitezke: haurrak nolako heldutasun maila daukan, jolasaren garapenean ze momentutan dagoen, harremanetan nola dagoen, konfliktoen aurrean ze estrategiak erabiltzen dituen, ea helduarekiko menpekotasuna duen ala ez, ea dagoen plazerrean edo desplazerrean, etab.

METODOLOGIA HONEKIN HASI ZINETENEAN ZE ARAZO EDO GABEZI IZAN ZENITUZTEN?

Zailtasunak poliki-poliki etorri dira. Urteak daramatzagu honekin; behi gauzak martxan daudela konturatzen zara, adibidez, denek gelaz gela joateko aukera dutenez, behaketa ez dela batere erraza. Behaketarako ikusten genuen oso argi izan behar genuela nola behatu, nola kontuan hartu. Koordinazioa egiterakoan, garrantzitsua iruditzen zitzaigun informazioa gainontzeko irakasleekin partekatzea. Sortu zitzaigun beste zalantza bat erreferentziatzeko gelatik mugitzea kostatzen zitzaien haurrekin izan zen; hauek laguntzen genituen, edo tutorea gelaz aldatzen genuen, edota korroan beraiekin hitz egiten genuen. Betiere bultzatu gabe, baina bai beste

espazio batzuk ezagutzera animatuz. Askotan gertatu zaigu hasiera batean ilusio pila batekin hastea, gero zalantzak sortzea... Hezkuntzan beti zaude atzera-aurrera, desmotibatuak batzuetan. Horrekin lotuta iaz zalantza asko izan genituen momentu batera iritsi ginen, haur batzuek ez zutelako gelaz lekualdatu nahi. Momentu horretan eskola osoa Ikaskuntza Kooperatiboa / Kooperatzen Ikasi formazio batean hasi ginen, nolabait 3 urtetatik 6.mailara eskola bezala amankomunean jartzeko, eta aurten, bigarren formazio urte honetan, giroetan zentratu gara. Azken formazio hau gure lan egiteko modua birplanteatzeko txutea izan da. Konturatu gara edukiaz edo giroaren antolakuntzaz gain espazio osoa hartu behar dela kontuan, hausnartu behar dugula. Izan ere, giroa hezitzailea da. Etengabe formatzen gaude, zalantzak argitzen. Momentu batzuetan motibazio handiarekin gaude, beste batzuetan aldiz, etsituta... denetarik.

ZE ABANTAILA DUTE, ZUENTZAT, ATE IREKIEK?

Abantailarik garrantzitsuena, umeen garapena eta beharrak gehiago errespetatzen direla. Ez da metodologia zorrotza, malgutasun handia dago ordutegiarekin, saioaren denboraren menpe egon beharrean umea etorri, sintonia eta harrera egin, hitz egin eta gero gelak irekitzen dira, lasaitasunez. Erritmo naturalagoa dela iruditzen zaigu, umearen erritmoa errespetatzen dela. Aukera ematen die autonomiarako eta autozainketarako; elkarrenganako komunikaziorako ere oso ona da, adin ezberdinen artean harremana baitute.

Gero espazio eta material aldetik ere abantailak ikusten ditugu; gogoratzen dut txokoka lan egiten genuenean, txoko guztiak gela batean zeudela, oso espazio txikian. Askoz ere material gutxiago genuen eta gainera etengabe txokoetan zeuden ikasle kopurua mugatzen egon behar ginen. Orain gela handi bat daukate, material piloarekin eta egiten dituzte eraikuntza batzuk ezinezkoak izango zirenak lehengo moduan, txoko batean. Berdin gainontzeko giroetan, gela oso bat, jolasteko, mozorrotzeko... Aukera gehiago ematen zaie material aldetik, espazio aldetik... konfliktoak murriztu dira eta errazagoa da plazerra jolasean aurkitzea.

Mugimendu autonomia ere errespetatzen da. Hori errespetatzen duzunean haurrak autonomia gehiago eta helduarekiko dependentzia gutxiago lortzen du. Haurraren prozesuak ezagutu behar dira; edozein prozesu ibiltzen ikastea bezala da eta prozesu hori nolakoa den ezagutzekotan, jakingo duzu haurra zein momentutan dagoen, eta horren arabera, gauza bat edo beste proposatu ahalko diozu. Ez baldin baduzu bilakaera hori ezagutzen eta errespetatzen 3 urtez egon zaitezke gauzak egitera behartzen, askotan batzuk haurrengandik oso urrun gelditzen direnak.

Normalean gertatzen dena (guri gertatu zitzaigun), zerbait aldatu baino lehenago, ez jakitea zer nahi duzun, nola egin nahi duzun. Baina argi duzun bakarra da momentu horretako lan egiteko modua ez zaituela asebetetzen. Normalean jakin beharrean zer nahi dugun argi daukagu zer ez dugun nahi.

Argi genuenean hori ez genuela nahi (gero erreskatatzen ahal dira gauza batzuk), hori izan zen lehenengo pausua. Gero zer? Hasiera batean erradikala izan zaitezke orain arte egindakoarekin, baina urteak pasatzen direnean eta beste modu batez ikusten dituzunean, esaten duzu "ez da dena ezetz, edo dena baietz". Fase hori pasatzen duzunean, konturatzen zara aurreko lan modutik zenbait gauza berreskuratzen ahal dituzula. Ez gara ixten. Egin behar den gauza bakarra garai berrietara egokitzea da. Eta hau ez da bukatzen, Hezkuntza ez da inoiz gelditzen; ziurrenik iritsiko dira momentu batzuk berriro zalantzak izango ditugunak edo aldatzeko beharra sentitzen dugula...

II. Eranskina: Gelako azpi-giroen erregistro-orria

Haurren izenak	AZPI-GIROEN ERREGISTRO-ORRIA										
	*X baten bidez markatu haurra azpi-giroan jarduten duen bakoitzean										
Haur 1											
Haur 2											
Haur 3											
Haur 4											
Haur 5											

III. Eranskina: Oteiza ikaskuntza giroaren eguneroko ebaluazio-orria

OTEIZA GIROAREN EGUNEROKO EBALUAZIO-ORRIA			
DATA:	BAI	EZ	OHARRAK
IRAKASLEA:			
Gelan giro atsegina egon da?			
Haurren artean arazorik egon da?			
Hurrek arazoren bat izan dute giroan jarduteko orduan?			
Materialaren aldetik arazorik egon da?			
Planteamenduren bat gidatu dut?			
Esku-hartu behar izan dut?			
Espazioa ongi kudeatzen jakin dut?			

IV. Eranskina: AMIA diagnosi-teknikaren bitarteko analisia

AMIA	BARNE JATORRIKO ANALISIA	KANPO JATORRIKO ANALISIA
ALDERDI AHULAK	<p>AHULEZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleria Oteizaren ekarpen estetikoaren inguruan gutxi formatua dago. • 3 urtekoak 4 eta 5 urtekoengandik bereiztuta daude, horrek adinartekoen harremana zailtzen du. • Irakasle lanbidea lan zama handia suposatzen duen ogibidea da, proposamen hau aurrera eramatea lan-karga gehiago suposatu dezake. • Horrekin lotuta, honelako ekintzako burutzeko denbora falta egon daiteke, koordinazio handia eskatzen du. • Eraikinak dituen mugak. Natura ondoan egoteak aukerak handitu ditzake, baina ez dago zuzenean eta modu seguruan ateratzeko aukerarik. 	<p>MEHATXUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Honelako ekintzak autonomiarekin burutzeko irakasle nahikoa behar da. • Gobernuak araututako espazioek mugak ezartzen dituzte. Askotan nahiko lukete pareta bat bota edo moldaketa baten bat egin, baina goitik agindutakoarekin moldatu beharra dute.
ALDERDI INDARTSUAK	<p>INDARGUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mendialdea II-ko gelak oso zabalak dira. • Giroek eskatzen duten koordinaziorako ez legoke arazorik, irakasleriaren artean giro ezin hobea baitago. • Talde lan izugarria egiten dute eta ziklo osoak ildo berdina jarraitzen du. • Giroetan oinarritutako formazioa daukate. • Irakasleen konpromezua, gogoia eta ilusioa handia da berrikuntzak egiterako orduan. • Alderdi afektiboa eta irakaslearen begirada enpatikoari garrantzia handia ematen diete. • Ikasle taldeen ratioak oso egokiak dira (17,18,20...) 	<p>AUKERAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jorge Oteiza Fundazio Museoak irakasleentzako formazioak eskaintzen ditu. • Museo horretara ateraldiak antolatu daitezke, Berriozartik nahiko gertu dago. • Garraioa duen eskola denez gero, museora garraiatzeko aukerak handitzen dira.

